

79

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2013ko urtarrila



ELKARRIZKETA

Olatz Arrieta

EiTBren berriemailea AEBetan:

*‘AEBetako prentsak
izen txarra du, baina
hedabide eta kazetari
bikainak’*

ERREPORTAJEA

**Zaharkitzapen
programatuak
eztabaida berpiztu du**

Eguneroko produktuen
iraupena fabrikatzaileek
mugaturik datorrela
frogatu dute

EZTABAIDA

**Genero-bereizketa
ikasgeletan**



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Q

Kudeaketaren
Kalitateari

2 0 1 2

IVAPek ZILARREZKO Qa

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) Zilarrezko Qa lortu du, EFQM Kudeaketan Bikaintasun Eredu Europarraren arabera egindako azken ebaluazioan. Azpimarratzekoa da IVAP dela EAEko Administrazio Orokorrean saria jasotzen duen lehen erakunde



A. Arin M 2012

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Zuzendaritza:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:

Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:

Itxaropena S.A.

Ilustrazioak:

Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:

Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Jon Arizkun, Xabier Artola, Begoña Ayerdi, Urtzi Barrenetxea, Eva Cifre, Valeria Colombo, Nagore Dorronsoro, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Irene Fernández, Iñaki Iñurrieta, Luma, Asier Martínez de la Pera, Patxi Petrirena, Nerea Pikabea, Aitor Sáez de Cortázar, Jon Salazar, Joseba Uskola.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulak berriatutako daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritzia.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ.
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

2 **Marraskia**
Asier Martínez de la Pera

4 **Pasadizoak**
Pentagramarik eza

5 **Pertsonaia**
Richar Oribe

6 **DUDANET**

7 **Elkarrizketa**
Olatz Arrieta

II **Eztabaida**
Genero-bereizketa ikasgeletan

I5 **Gramatika**
Itzulpen-mintegi iraunkorra

I7 **Informazio eta komunikazioaren teknologiak**
Dropbox: Interneten fitxategiak gordetzeko sistema

[ARIKETAK]

19 **Leihatila**
Bixi
Xabier Artola

20 **Erreportajea**
Zaharkitzapen programatuak eztabaida berpiztu du

24 **Normalizazioa**
Sektore Publikoko kontratuak eta euskara

26 **Hitzez hitz**
Bulegotika hiztegia

28 **Leihatila**
SARE SOZIALAK
Nagore Dorronsoro

29 **Giza baliabideak**
Lanaren neketik suspertzea: suspertzeko beharraren arrazoiak eta suspertzeko jarraibideak

3I **Zientziaren dibulgazioa**
Geoingeniaritza: azken megalomania

34 **Denbora-pasak**

JOXERRA INTERÍNEZ

Behin-behineko funtzionarioa



www.facebook.com/joxerra.interinez

Pentagramarik eza

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

Musikagileek badituzte sortzen dituzten doinuak paperean lotzeko baliabideak; baita idazleek ere beren burutazioak paperean jaso eta gordetzekoak. Ez naiz ari ez oroimenaz, ez grabazioez; paperaz baizik. Eta esaten da, ba, “*eztakit, neuk pentsatu*”, horrelaxe ari naiz honetan. Jardun.

Hasiera batean, doinuek hegan ihesi ez zezaten, aukera bakarra buruz ikastea zuten, buruan bildu eta hantxe gordetzea. Denbora pasa ahala papiroetan, pergaminotan, paperetan itsasteko erak asmatu zituzten. Doinuak paperean! Erraza delakoan! Pentsatu, pentsatu! Eta horretara noa ba, paperean gordetako musikara.

Ez da meritu makala pentagraman lotzea hainbeste doinu eta kantu beren soinu edo ahots, aire, tonalitate, neurri, harmonia, abiada edo erritmo sinkopatu eta guzti, klabeaz, konpasez, notaz, sostenitu edo diesiz... Graziaz eta dotoretasunez lotu ere frankotan, musikari iaioek pentagramakoa irakurri eta jotzen dutenean erakusten digutenez. “*Memo-lak euki bere!*” esaten ei eban Bizkaiko danbolintero batek. Esaterako, Beethovenek (1770-1827) ez zuen ezer grabatu, artean ez zen-eta grabatzeko modurik. Musika paperetan jaso zuen, ordea, eta duela berrehun urte idatzitako doinu haietxek, paper haiexetan irakurriz, gaur egun edozein orkestrak jo ditzake.

Diotenez, Beethovenen sasoiko pianoen eta orduko beste musika-tresnen aldean gaur eguneko pianoak-eta askoz finagoak, hobeak dira. Horrela, bada, or-

duko tresnen eta oraingoan soinuak ere ez dira berak; antzekoak edo oso antzekoak bai, baina ez berak. Gaur eguneko piano guztiek ere ez dute soinu bera. Txistuak ere nolako aldaketa irabazi duen azken urteotan! Baina ez naiz ari tresnen soinuen kalitateaz. Jakin nahi nukeena da, batetik, musikagileak bere baitan dabilkion doinua ea nahi duen bezala josten duen pentagraman, ezer ere galtzen edo aldatzen ez duen pentagraman idatzi behar horretan, eta, bestetik, musikajoleak doinu jator hori bera, ñabardurarik galdu gabe ateratzen duen pentagramatik. Alegia, pentagrama nahikoa den doinuak oso-osorik jasotzeko eta eskaintzeko. Bentaja ederra halako pentagrama bagenu euskaraz idazteko!

Izan ere, ahoz esaten ditugun zenbait gauza idazterakoan, ez beti, baina bai sarritan, lan handiak ditugu, eta ezinak mende hartu ere hartzen gaitu, batez ere saiatzen bagara paperekoa irakurri behar duenak guk adierazi nahi izan duguna bere hartantxe ulertuko duen. Adibide labur, soil eta arrunt hau: *Joxe etorri da*.

Joxe etorri da idatzi dut eta hemen duzue paperean. Zer adierazi nahi izan dut?, zer ulertuko du irakurtzen duenak?:

“**Joxe etorri da = Nor etorri da? –Joxe**” ala “**Joxe etorri da = Etorri al da Joxe, bai ala ez? –Bai, etorri da**”.

Zer adierazi nahi izan dut? Esan, esan! –“*Hor tziopa!* (hor zegok ba!)”, erantzungo luke Tomas *Txikik*. Izan ere, esanda, doinuari esker, garbi ulertzen da; idatzita, berriz, bi modutara uler daiteke;

beraz, irakurleak asmatu egin behar du esanahia.

Beste adibide motx bat? *Mirenek jan al du txuleta?*

Nork jan duen txuleta? –Mirenek?

Jan du ala ez? –Bai, jan du.

Zer?, zer jan duela Mirenek? –Txuleta, txuleta jan duela!

Hor ba: galdera bakarra eta hiru erantzun batean! Ezin ote dugu esaten dugun bezala idatzi? Ez ba! Zergatik ez ba? Pentagrama eskasa dugulako. Eta hemen gabilzkizu “galdegaia aditzaren aurrean denean ez dakit zer, galdegaia aditzaren atzean denean ere ez, testuinguruari begiratu behar zaiola...” eginez, hitz bakar batek ere lanak ematen dizkigun bitartean, *arrantza* astoaren melodia ala *arrantzaleen* jarduna den asmatu ezinik. Hurrengoan jarraituko dugu.


Badira urteak. Frantzian, udaleku batean ezagutu nituen 8-10 urteko bi anaia, irundarrak; ama arabarra zuten, aita nafarra. Ez bata ez besteak ez zuten ahozkatzen ez *k* ez *g*. Niri Kaxildo deitzen zidaten. Txikiak ohitura handia zuen “Gora Euskadi askatuta” esatekoa, eta batean azkoitiar batek esan zion kontuz ibiltzeko, Irunen halakorik esanez gero, baten batek salatu eta kartzelara eramango zutela. Mutikoaren erantzuna: “Ezin naute eraman kartzelara. Nik ez dut esaten gora Euskadi askatuta, nik *gora Euskadi askatuta* esaten dut”. Bazuen pentagrama, ez egoki-egokia, baina edozein salatarik argi ulertzeko modukoa bai. Balekoa, beraz. ■

RICHAR ORIBE,

IGERILARIA:

‘Goi mailan egoteko gauza askori uko egin behar zaio’

NEREA PIKABEA
KAZETARIA



G arun-paralisiaren lesioa arintzeko helburuarekin igeri egiten hasi zen ASPACEn kirolari donostiarra. Otsailean egingo ditu 39 urte eta goi-mailako igerilaria da gaur egun, Javier de Aymerich entrenatzailearen laguntzarekin. Sei aldiz parte hartu du Joko Olinpikoetan eta, guztira, hamasei domina eta bi diploma irabazi ditu.

Noiz ikusi zenuen goi mailako txapelketan lehiatu zenezakeela?

1992ko Bartzelonako Joko Olinpikoetan minusbaliotasun desberdinak zituzten kirolariak ikusi nituen. Euren ahalmeneren barruan hobetzen nola ahalegintzen ziren ikusi nuen. Horrek zirrara eragin zidan eta 97-98 denboraldian, Donostiako igeriketa klub arruntarekin harremanetan jarri nintzen, maila horretan entrenatzen hasi ahal izateko.

Nola antolatzen dituzu entrenamenduak? Denboraldiko une batzuetan, goiz eta arratsalde entrenatzen dut. Bizitza oso egituratua eta ordenatua dut. Aurtengo udan, esate baterako, Londresko Joko Olinpikoei begira, hiru astez egon gara kontzentratuta neure entrenatzailea eta biok. Goi mailan egoteko, gauza askori uko egin behar zaio.

Fisikoki prestatzeaz gain, psikologikoki ere prestatu beharko da, ezta?

Amaya Ramirez psikologoa sartu dugu entrenamenduetan. Horrez gain, Enrique Perez de Ayala Gipuzkoako Poliklinikako medikuaren laguntza fisiologikoa ere jasotzen dut.

Minusbaliotasuna dutenek goi mailan lehiatu dezaketela erakusteko gogor lan egin behar izan duzu?

Kirolari bat gehiago naiz gizartearentzat, “minusbaliatu” hitza erabili beharrik gabe. Kirol munduko beste izen handiekin alderatzen nau gizarteak. Administrazioek, ordea, desberdinak gara sentiarazi eta modu desberdinean tratatzen gaituzte oraindik, gutxiago baloratzen baikaituzte.

Minusbaliotasun bat dutenez ere ere duzu inspirazio iturri zara.

Ohartzen naiz horrekin, baina eredu ez bakarrik minusbaliotasuna duten pertsonentzat. Minusbaliotasuna dutenen kasuan, ohartzen naiz eredu naizela eta kasu batzuetan idoloa ere bai, esan didatenez.

Ba al dago nahikoa baliabide Euskadin minusbaliotasuna dutenek goi mailan lehiatu dezaten?

Diskriminaziozko tratua jasotzen dugu minusbaliotasuna dugun goi-mailako kirolariok. Kirolari arruntekin alderatuz gero, ematen diren laguntzak txikiagoak dira eta gainera gehiago eskatzen zaigu. Diru sari bat lortu nahi badut, urrezko domina lortu behar dut munduko txapelketa batean edo Joko Olinpikoetan.

2016ko Joko Olinpikoak zure helburuen artean daude?

Animatuta baldin banago, 2012-2013 denboraldian Kanadako munduko txapelketan parte hartuko dut. Gainera, nire mintzamina lantzen jarraituko dut Alex nire logopedarekin, hizketarako ahalmena hobetzen laguntzen ari baitzait. Igeriketako teknikari izateko ere trebatu nahi dut neure burua Javier de Aymerich nire entrenatzailearekin. Rio 2016, berriz, oso urrun dago. Ez dut baztertzen. Denborak esango du. ■

DUDANET lineako kontsulta-zerbitzua

Hemen dituzu IVAPeko DUDANET kontsulta-zerbitzuan erantzundako zenbait zalantza:

GALDERA

Honelako hitzak: *jendea*, *joan*, *jeloskor* eta beste zenbait hitz “j”z hasten direnak, “y”z ahoskatzen ditugu maiz.

Zer dio Euskaltzaindiak horri buruz? Zein da egokiena edo hobetsitako forma? *Jendea* ala *yendea*, *joan* ala *yoan*, *jeloskor* ala *yeloskor*...?

ERANTZUNA

Euskaltzaindiaren 87. arauak honako hau zehazten du <j> letraren ahoskeraz erregistro formaleko testuinguruetan:

- **VIII. <j>** letraren euskarazko ahoskera oinarrizkoa <y> da eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera oro har. Halaz ere eta beraz:
- **VIII.1. <j>** hitz hasieran <y> ahoskatuko da (hala nola *jateko* yateko, *jokalariak* yokalariak). Badira [x] belarraz ere ahoska daitezkeen hitzak. Hitz horietako batzuk hizkera maila zainduetan gertakortasun urrikoak dira, beste batzuk (*Heg.* marka daramatenak) Hegoaldean erabiltzen dira (hala nola *jertse*, *jipoi*, *jira*).
- **VIII.2. <j>** hitz barruan gertatzen denean, <y> izango litzateke ahoskera zainduena. Hala ere, gaurko egoera kontuan izanik, Hegoaldeko [x] belarra (gazt. *jamón*) eta Iparraldeko <z> sabaiaurrekoa ere (fr. *jam-bon*) onartzen dira hizkera zainduan *gara-je*, *ijito* bezalako hitzetan.

Hortaz, aipatzen dituzun *jendea* eta *jeloskor* hitzak <y> ahoskeraz erabili beharko lirateke erregistro formalean.

Informazio gehiago:

- Euskaltzaindiaren 87. araua: “Euskara Batuaren ahoskera zaindua”.

GALDERA

–*Arantzak eta biok* (esaten zuena barne) *egin dugu lan hau.*

–*Arantzak eta nik, biok, egin dugu lan hau.*

–*Arantza eta biok egin dugu lan hau.*

Zein dago gaizki?

Zein da egokiena?

ERANTZUNA

Eta biok esapide jatorra 1. pertsona singularra edo 2. pertsona singularra ordeztuko erabiltzen da, berarekin batera beste norbait ere agertzen bada. Alegia, *eta ni* edo *eta hiz* zuren ordeztu.

Esapide hori deklinatu egin daiteke. Eta Euskaltzaindiak 111. arauan zehazten duenez, sintagma singularrak juntatzean biak deklinatzea hobesten du.

Horrela bada, *Arantza eta biok egin dugu* edota *Arantza eta nik egin dugu* bezalako egiturak baztertzekoak dira.

Bestalde, lehenengo bien arteko aldea estilistiko da; egokitasun maila berekoak dira.

Informazio gehiago:

- Zubiri, Ilari; Zubiri, Entzi. *Euskal gramatika osoa*. 2. argit. Bilbo. Didaktiker, (2000). 153.-154. or.
- Euskaltzaindiaren 111. araua: “Izen sintagmen arteko juntadura dela eta”.

GALDERA

“Zeintzuk” erabiltzekotan, zelan esan edo idatzi behar da: “zeintzuk galderak” ala “zeintzuk galdera”? (“Zeintzuk gauzak” / “zeintzuk gauza”?).

ERANTZUNA

Zein eta *zeintzuk* galdetzailak mugagabe deklinatzen dira. Beraz, zuk jarritako adibideetan “zeintzuk galdera” eta “zeintzuk gauza” dira forma zuzenak.

Dena den eta ohar gisa, esan nahi dizugu Euskaltzaindiak, 11. arauan, forma bakunari eman diola lehentasuna, hau da, *zein* formari:

–Zein gauza dira zuretzat harrigarrienak?

–Zein galdera ez dituzu ulertu?

Antzeko kontsulta gehiago ikusteko, edo zeure zalantzak argitzeko:

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioIdioma.do?v50aCgaIdioma=eu>

OLATZ ARRIETA

EiTBren berriemaile AEBetan:

‘AEBetako prentsak izen txarra du, baina hedabide eta kazetari bikainak’

MIEL A. ELUSTONDO
IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA

EiTBk AEBetan duen berriemaile da aspaldi. Aurpegi ezaguna gurean, telebista ikusleen eta irrati entzuleen artean, urtea joan urtea etorri bertan delako beti Olatz Arrieta (Astigarraga, Gipuzkoa, 1971). Ozeanoz alde honetakooi hango albisteak emanaz bizi da, mundua egosten den lekuan, AEBetan. Planetako potentzia ekonomiko –eta militar– handienari begira bizi gaituzte eta, partez bederen, Arrietaren begietatik barna ikusten ditugu Amerika eta mundua.



2000tik hona zara New Yorken EiTBreren berriemaile. Urte asko dira, inondik ere. Ez dakit berriemaileetan ba ote den zu bezain luze ari denik...

Uste dut Bartzelonan dagoen Eli Zunzunegik nik baino denbora gehiago dararamala berriemaile. Baina une honetan atzerrian diren EiTBreren berriemaileen artean neu naiz beteranoena...

Hedabideak jasaten ari diren krisiak zertan jo zaituzte AEBetako kazetariak?

Ekonomi krisia, batetik, eta hedabideetakoa, bestetik, Europan baino lehenago hasi ziren hemen. Amerikako Estatu Batuetan hedabide guztiak murrizketak egin dituzte, batzuk desagertu egin dira, eta guztiak teknologia berrien bitartez diru-sarrera berrien bila dabilta era batera edo bestera. Gure kasuan (Euskal Telebistaz ari naiz), lehen baino gutxiago bidaiatzen dugu orain AEBetan barrena eta, ondorioz, albiste gehienak New Yorketik bertatik egiten ditugu, lau urtean behin izaten diren hauteskundeak salbu. Telebista beste hedabide batzuekin alderatu eta gastu tekniko handiagoak ditu, eta, beraz, eskura dauzkagun bitartekoak baliatuz albiste gehiago egiten ari gara New Yorketik bertatik. Horretan gara.

Ez dakit zeure burua amerikartua ikusi duzun inoiz. Edo, beharbada, halakotzat ikusi zaitu bestek...

Amerikako Estatu Batuetan hainbeste denbora bizi eta gero hemengo ohitura batzuk hartu ditut, ezin ukatu hori. Baina, bestelakoan, europarren modura daukat antolatuta bizitza. AEBetan baino lehen Errusian izan nintzen berriemaile, eta "La rusa" (Errusiarrak) esaten zidan zenbaitek eta hona etorri nintzenean, berriz, "Yankee". Nire ustez, jaioterria ez den herrialde batean bizitzera ohitzeko prozesuaren barruan dago herrialde horretako ohitura batzuk hartzea. Esate baterako, kafea kalean oinez zoazela hartzea edo dendara sartu eta dendariak irribarre

'AEBetan hedabide guztiak teknologia berrien bitartez diru sarrera berrien bila dabilta'

batekin hartzeko ohitura estatu batuar hori zeureganatzea... Dena den, ez dut uste neure ikuspuntua galdu dudarik; ez daukat arazorik hemengo gauzak eta pentsamoldeak, batetik, eta horkoak, bestetik, bereizteko eta alderatzeko. 1997an iritsi nintzen lehenengoz New Yorkera, baina egunero egoten naiz Euskal Herriarekin harremanetan eta, gutxienez, urtean behin joaten naiz hara oporretan. Gainera, New Yorketik etorkinekin duen historia eta tradizio handia ikusita, konturatzen naiz AEBetako beste toki batzuetan baino errazagoa dela hemen zure herrian bezala bizitzea. Esate baterako, joan den mendeko 50eko hamarkadan Chinatownera iritsi ziren txinatar-amerikar adineko asko daude Chinatownetik sekula atera ez direnak, eta ingelesez *Hello!* (Kaixo!) besterik esaten ez dakitenak.

1997an New Yorkera iritsia, zer oroitzapen duzu aldi joan horretaz?

Kultura eta herrialde berri batean zerotik hastea polita eta gogorra izaten da aldi berean. Ni ikasle etorri nintzen AEBetara, baina ikastea eta, era berean, lan egitea ez da erraza izaten. Ikasketak bukatu nituenean, nazioarteko gaietan eta Internetarekin zerikusia zuten bertako bi enpresatan lan egiteko aukera izan nuen eta oso aberasgarria gertatu zitzaidan; hemengo lan kultura ezagutzeko, batik bat. Estatu batuar oso langileak dira eta lan egiten duten enpresarekiko atxikimendu berezia dute. Lantaldean aritzeko ere, esateko, kultura handia daukate, nahiz eta oso indibidualistak izan. Lanarekiko lotura ikaragarria dute kasu askotan, eta denbo-

ra librea hartzeko gai ere ez dira amerikar batzuk. Hona etorri artean, sekula ez nintuen ezagutu oporrak hartzera behartu izan dituzten pertsonak.

New Yorkera etorri arren, eta lana medio, batera eta bestera mugitzeko modua izan duzu, jende mota ezberdin asko ezagutzeko aukera...

Bai, hori bai. Lehenengo aldiz Los Angelesera joatea egokitu zitzaidan Oscar sariaren inguruan informatzera, tartean euskal laborantzaia bat zegoelako. Ni zinemazale amorratua izanik, Oscarretan egotea oso polita izan zen. Bestalde, lanean hasi eta berehala, Idaho, Nevada eta Kaliforniako euskal komunitatearekin lehenengo harremana izan nuen, eta hura ere oso pozgarria izan zen. Gure kultura nola gordetzen eta goraiatzeko duten ikusi ahal izan nuen bertatik bertara. Urte hauetan Euskal Herriko artista eta ikerlari ugari ere etorri dira AEBetara, eta poza ematen du. New Yorken dagoen mundu mailako lehiakortasunarekin, nola lortu duten bidea irekitzea!

AEBetako berriak, gurean, hauteskundeak, tiroketak, edo hondamendi naturalak izaten dira...

Bai, horrela da... Lehendakariartzarako azkeneko bi hauteskundeak, esaterako, zeresan franko eman dute nazioartean, eta New Yorken bi urakan handi ere izan ditugu urtebetean, epe laburrean, alegia. Boladak izaten dira. Tiroketen bolada ere izan genuen joan den udan. Estatu Batuetako albisteak ez ezik, Nazio Batuen Erakundearen jarraipena ere egiten dut. Israeldar eta Palestinarren arteko gatazka, Ekialde Hurbileko iraultzak, Siria, Irak... Nazioarteko puntu bero guztiak Nazio Batuetan eztabaidatzen direnez, askotan jorratzen ditugu Segurtasun Kontseiluaren eztabaidak eta debatak. Nazioarteko politika gustukoaren dudak gaia da; Nazio Batuetako gai guztiak asko gustatzen zaizkit; munduan dauden



fobiak eta filiak, aliantzak, azpijokoak, interes ekonomikoak eta gainerako guztiak bertan plazaratzen direlako.

Behin edo behin, Ibarretxe lehendakari zelarrik batik bat –ez Patxi Lopez agintean izan delarik–, mendebaldeko euskaldunak ere albiste iturri ohi ziren, Idaho Pete Cenarrusa eta beste.

Pete Cenarrusa, Idaho estatuko idazkari zenean albiste iturri izan genuen, bai. Azkenaldian Idaho ez dugu albiste iturri izan eta, izan denean, ez da posible izan hara joatea. Urruti xamar dago New Yorketik. Orain dela urte pare bat, berri, New Yorkeko Ellis Island-en euskal immigrazioari buruz egin zen erakusketan zoragarrian izan genituen AEBetako Mendebaldeko euskaldunak.

Inoiz esan izan diguzu New Yorkeko euskal etxea ezagutzen duzun arren, munduan batekoak eta besteak dituzula adiskide, ez zarela “euskalduna euskaldunarekin” ibiltzekoa...

Bisitan datozen euskaldunekin solasaldian aritzea asko gustatzen zait. Euskal

‘Teknologia berriak kaletik urrun dagoen kazetaritza eta kazetari alferra sortu ditu’

Herriko aktualitatea eta eztabaidak Internet bitartez jarraitzen ditudan arren, hangoekin hitz egitea gustatzen zait euren iritzia ezagutzeko. Nire lagun gehientsuenak hemen hedabide munduan dabilta, eta gehienak atzerriko berriemaileak dira. Horregatik nabil gustura atzeritarrekin; beste herrialdeetako jendearekin ibiltzea, euren gastronomia eta kultura ezagutzeko... oso gauza aberasgarria da. Aldi berean, nik neure kulturaren berri ematen diet.

Urte hauetan lan ona egin duzunik ezin uka: gure herrietako auzoak bezain ongi –izenez, bederen–, ezagutzen ditugu

Mississippi, Nevada, Illinois edo Hego Karolina...

AEBetako 50 estatuak, batzuk eta besteak, oso ezberdinak dira. Hala ere, gauza komun asko dituzte. Ni, neure aldetik, AEBak herrialde anitza direla islatzen saiatzen naiz beti. Jende asko urteetan eta urteetan zabaldu diren topikoetan babestu da, AEBak ezagutzeko ahalegirik ez dute egiten, eta, beraz, ezagutzen ez diren gauzak kontatzen saiatzen naiz ni, gertakarien testuinguru historikoaren berri ematen, adibidez. AEBak munduko potentzia militar eta ekonomiko handiena direnez, hemengo kultura oso hedatua dago nazioartean eta horregatik da hain ezaguna herrialde hau. New Yorkera lehenengo aldiz etortzen diren guztiek horixe esaten dute, alegia, filmetan agertzen den bezalako delanda mundu hau.

Teknologia berrien zale handia zaitugu. Horra zu Facebook-en, horra Twitter-en noiznahi... Zertan dituzu teknologiaren on eta gaitzak?

Teknologia berriekin errazagoa eta azkarragoa da eskura ez dagoen informazioa jasotzea, baina aldi berean kaletik urrun dagoen kazetaritza eta kazetari alferra sortu ditu. Interneten iraultzak hedabideak nola aldatuko dituen ikusteko goiz da oraindik, baina informazioa jasotzen, moldatzen eta zabaltzen duen kazetariak kazetari izaten jarraituko du, telegrafoaren, irratia, edo telebistaren iraultzen ondoren gertatu zen moduan. Interneti esker herritarren ikuspuntua zuzenean jaso dezakete hedabideek erredakziotik atera gabe ere! Bestalde, herritar batzuk kazetari lanetan jarri dira, eta bi norabideko komunikazioaren iraultzak alde onak eta txarrak dauzka kazetaritzarako...

Berriemaile zarenez, zaila behar du teknologia horiek lanetik kanpora itzalirik edukitzea, ala?

Nik esango nuke teknologia berriek, etxean gaudela ere, lanean jarraitzeko

aukera ematen digutela, eta, egia esan, askotan zaila izaten da albisteen jarioetik erabat deskonektatu eta mundu errealean bakarrik bizitzea. AEBetan tramankulu elektronikoak itzali ezinik bizi den jende asko dago. Batzuk etxe berean dagoenari mezuak bidaltzen ibiltzen dira telefono mugikor bidez, eta, diotenez, aurrez aurre komunikatzeko gaitasunik ez duten gazte asko omen dago.

Nazioarteko Harremanak ikasi zenuen New York Unibertsitatean eta galdera egingo dizugu, berriemailetza une batez aparte utzirik. Latinoamerika bakean utzia dute AEBek –edo kontrolpean dute?–, eta Ekialde Hurbilean da gatazka bizia orain. Nork eta nola erabakitzen du, aldiari aldiari, sua non piztu, dela benetako sua, dela informazioa?

Nazioartean albiste zer izango den munduko bi albiste agentzia handiek erabakitzen dute askotan: Reuters-ek eta Associated Press-ek. AEBetan atzerri politikan Latinoamerikak ez dauka orain dela urte batzuk zuen garrantzia, nahiz eta delako droga trafikoaren kontrako gerran Washingtonen presentzia militarra hor egon beti, bai Mexikon eta bai Kolonbian. Dena den, Latinoamerikaren bizilagun izanda, AEBentzat beti izango da estrategikoa bertan gertatzen dena, eta haren “gainean” egongo da. Azken aldiari, esate baterako, Venezuelaren, eta, batez ere, Brasilen bidez, Latinoamerikako herrialde batzuk Washingtoni aurre egiten ari dira. Washingtonek lehen baino kritika gehiago entzun behar izaten ditu gaur egun. Bestalde, joan den mendeko 90eko hamarkadaz geroztik, AEBak Atlantikora baino gehiago Pazifikora, Asiara, begira daude, nazioarteko harremanetan ekonomiak arlo militarrek baino garrantzia handiago hartu duelako. Eta Txina ere hortxe dagoelako, jakina.

Zein irizpide baliatzen duzu halako edo halako albistea aukeratu eta Euskal Herriko ikus-entzuleoi jakinarazteko?

‘Nazioartean albiste zer izango den munduko bi agentzia handiek erabakitzen dute: Reuters-ek eta Associated Press-ek’

Hemen sortzen den albiste zerrenda luzetik zein albiste eman, editore eta arlo arduradunekin batera erabakitzen da, ez da norberaren hautua. Albiste agentziak eta bertako hedabideak ere begiratzen ditugu. Kala, jendearen ahotan dabilzan gaiak ere kontuan hartzen ditugu... Nazioarteko albisteen tartea ez da ikaragarri handia albistegietan, beste berriemaile batzuek ere albisteak egiten dituzte, eta gai asko kanpoan geratu behar dira, nahitaez. Tebistaren kasuan, albistearen irudirik ez badaukagu, ia ezinezkoa izaten da albistea ematea. Irrati bidez errazagoa izaten da.

Noam Chomsky elkarrizketatzeko aukera izan zenuen orain urte batzuk Administrazioa Euskaraz aldizkari honen Solasaldiak gehigarrian. Ez da hura egunero elkarrizketatzeko modurik izaten. Zertuk aukera eman dizkizu lanbidea AEBetan egiteak?

AEBetako unibertsitateetan dauden pentsalari eta zientzialari bikain gehienak hedabideetan ateratzeko prest egoten dira hemen, mundu akademikora murriztuta dagoen jakintza zabaldu nahi dutelako, batetik, eta unibertsitateentzat publikizitatea delako, bestetik. AEBetan edozein gai jorrazteko adituak aurkitzeko zailtasun handirik ez dago. Kasu gehienetan, gainera, euren alorrean munduko jakintsuenak izan ohi dira eta honek asko aberasten du

kazetaritza. Hemen berriemaile izateak AEBetako hedabideak gertutik ezagutzeko aukera eman dit. AEBetako kazetaritza ez da CNN bakarrik. AEBetako prentsak “prentsa” edo izen txarra du, baina hedabide eta kazetari bikainak, kazetaritzaren kode etikoa, adierazpen askatasuna eta gizarte zerbitzu dituzte zutabe.

2001ean Dorre Bikien kontrako eraso izango da, beharbada, inoiz kazetarik eman duen albistetik ikusgarriena, baina hamaika ere badira irrati-telebistaz kontatu dizkiguzunak. Zeinek eta zeinek kolpatu zaituzte zu barru-barrutik?

Barack Obama presidente aukeratu zenean afroamerikarrek sentitu zuten poza barruraino sartu zitzaidan... Mexikoko Golkoan lehertu zen BPko petroliontzia isuriak Alabamako arrantzaleak lur jota nola utzi zituen ere oso gogoan daukat... Edo Floridan, epaitegiaren aurrean, epailearen erabakiaren zain geundela, Pablo Ibarren aita Kandidok semea espetxetik ateratzeko zeukan itxaropena... New Yorkeko burtsan nengoan, *broker* artean, Dow Jones indizeak behe-rakada historikoa izan zuenean. Ikustekoa zen, *broker* haietako batzuk oihuka, besteak panikoak jota... Guantnamoko kartzela militarrean, AEBetako armadak “terrorismoaren aurkako” gerran harra-patu eta bizi osorako giltzapetu zituenen aurpegietan zegoen izua gogoratzen dut, kartzela hark zeukan kontzentrazio barruti itxura, hark sortu zidan tristura... Ondo gogoan ditut horiek denak.

Gogoan duzu AEBetako berriemaile eman zenuen lehenengo berria? Horrek ere badu historia, nonbait...

Urduritasun handiena eragin zidan egoera 2000ko hauteskunde gaua izan zen. Bush eta Gore hautagaien arteko norgehiagokatik ez zen irabazlerik irten. Ez zegoen lehen-dakaririk! Lehenengo zuzeneko konexioak egin nituen orduan tebistaz, eta oso urduri nengoan, informazioa oso nahasia zen... Nahiko gaizki pasatu nuen, bai. ■

Genero-bereizketa ikasgeletan

IÑAKI IÑURRIETA
KAZETARIA ETA ITZULTZAILEA

Joan den abuztuan, Auzitegi Gorenak ebatzi zuen bi ikastetxek, bat Kantabriakoa eta bestea Andaluziakoa, ez dutela jaso behar Estatuak ikastetxe hitzartuei ematen dien diru-laguntza, neskak eta mutilak bereizita diskriminazioa egiten dutela-eta. Wert Espainiako Gobernuko Hezkuntza ministroak, onartu arren, esan zuen ebazpen hori beharbada ez zettorrela bat Unescok hezkidetzari buruz esandakoarekin. Ondotik, eztabaida sortu da gai horren inguruan komunikabideetan eta, oro har, gizartean. Bereizketaren aldekoek garun-desberdintasunak eta emaitza akademikoak aipatzen dituzte batez ere. Bereizketaren kontra daudenen arabera, berriz, zertan bereizi irakaskuntzan, gizartean elkarrekin bizi bagara? Genero-desberdintasuna eta sexismoa arazo dira oraindik ere...





ITXARO SOROZABAL,

Ayalde ikastetxeko zuzendaria:

Ba al da diskriminaziorik irakaskuntzan neskak eta mutilak bereizten direnean?

Ez. Inola ere ez. Hezkuntza Desberdinduaren eredu pedagogikoak nesken eta mutilen berdintasuna du abiapuntu; berdintasuna duintasunean, eskubide eta betebeharreran. Bide ematen du hezkuntza heltze- eta ikaste-erritmo desberdinen arabera pertsonalizatzeko, eta, hartara, aukera-berdintasun erreala bermatzen du. Eredu pedagogiko horri *single-sex* deritza ingelesez, eta curriculum akademiko berbera ezartzen du neskentzat eta mutilentzat, baliabide material eta tekniko berberak erabiltzen ditu batzuentzat eta besteentzat, eta hezkuntza-maila bereko irakasle taldeak. Ezaugarri horiei esker, Hezkuntza Desberdindua bete-betean har daiteke hezkidetzaren ereduak. Azkenik, nabarmenduko dut nazioarteko legeriak ere erabat ezagutzen duela hezkuntza-eredu hori: UNESCOk, EBko Eskubideen Gutunak, Europako hezkuntza-legeak eta gure inguruko zenbait herrialdetako ordenamendu juridikoak (Frantziako, Erresuma Batuko, adibidez).

Zergatik bereizi neskak eta mutilak irakaskuntzan?

Arrazoi hauek aipatuko dizkizut:

1. Ikasleen heltze-garapena pertsonalizatzen laguntzen du, aintzat hartzen baititu bakoitzaren erritmoetan diren desberdintasunak, eta, hartara, adin jakin batzuetan beste sexuaren aldean desabantailan dauden gaitasunak bultzatzen ditu bereziki. Gainera, Michael Gurian adituak dioenez, arreta berezia eskaintzen die nesken eta mutilen ikaste-moduei, desberdinak baitira, garunaren egitura eta funtzionaltasuna ere desberdinak direlako.
2. Hobetu egiten du ikasgelako lan-giroa: giro lasaiagoa eta baketsuagoa sortzen laguntzen du, ikastetxean eta eskolako ordutegian arreta galarazten duten elementuak gutxituz.
3. David Chadwell adituaren hitzak erabiliz, Eskola Desberdinduak autoestimua, arrakasta-nahia eta gizartean lankidetzan parte hartzeko gogoia indartzen ditu.
4. Ikasleen eta irakasleen arteko eragin-trukea ere hobetzen du; izan ere, irakasleak eta ikasleak sexu berekoak izateak hobetu egiten du enpatia, ikaslea lasaiago senti daiteke, eta, beraz, hobeto erantzun diezaiotke irakasleak eskatzen dionari. Ondorioz, hobetu egiten da eskola-giroa, eta hori giltzarria da bai garapen afektibo eta sozial egokiagoa izateko, bai errendimendu akademikoa hobetzeko.

Bat bagatoz generoen arteko berdintasun gero eta handiagora jotzeko helburuan, bereizketa hori ez al da atzerapausoa?

Hezkuntza Desberdinduaren eredu abangoardiako eredu da Mendebaldeko herrialde aurreratuak. Alemanian, zenbait länderek mutilen absentismoa konpontzeko bultzatu dute Hezkuntza Desberdindua. Estatu Batuetan, esperientzia batzuk, hala nola Chicagoko “Urban Prep Charter” izenekoa, oso arrakastatsu gertatu dira eskola-porrot handia zuten eskola misto batzuk eskola desberdinu bihurtu ondoren. Erresuma Batuan, 100

ikastetxe onenen artean, 81 Hezkuntza Desberdindukoak ziren; horietatik 25, publikoak. Azkenik, datu interesgarri bat: Office for Standard in Education eskolai-kuskaritzarako erakunde independenteak Hezkuntza Desberdindua gomendatzen du “2020 Vision” agirian, hezkuntza-sistemarako lehentasunen artean. ●



GARBIÑE ARRIZABALAGA,

Baikara Gipuzkoako guraso-elkarteen federazioko formazio-arloko arduraduna:

Wert ministroaren arabera, neskak eta mutilak irakaskuntzan bereiztea ez da diskriminatzea. Zer iritzi duzu zuz?

Arrazoi asko daude Wert ministroak dioena zalantzan jartzeko, baina honako hauek nabarmenduko ditut: lehenik eta behin, segregazioak ez du bermatzen hezkidetzan hezte eta, beraz, ezta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ere, eskubide eta betebeharreri zein aukera-berdintasunari dagokienez. Segregazioak estereotipoak eta aurreiritzi sexistak sustatzen ditu, eta ez du laguntzen neska eta mutikoak egoki sozializatzen. Horrez gainera, kontuan hartzen badugu genero-segregazioaren alde dauden ikastetxeak eliteko ikastetxeak direla, korrante

erlijioso jakin bati lotuak –korronte horrek bestela ere segregatzen ditu ikasleak, jatorri sozialaren eta ekonomikoaren arabera hautatzen baititu–, Wert ministroaren hezkuntza-motibazioen adierazle argia dugu hor.

Zergatik ez dira bereizi behar neskak eta mutilak irakaskuntzan?

Lehenik, oinarritzko giza eskubide batenatik: diskriminaziorik ez, jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein ezaugarri pertsonal zein sozial dela-eta.

Bigarrenik, oraindik ere, hezkidetzaren alde dagoen sistema batean, asko dagoelako egiteko gizonen eta emakumeen berdintasunaren inguruan, argi asko ikus dezakegu hori gizonei eta emakumei tradizioz esleitu zaizkien rolak gainditzea dela-eta.

Hirugarrenik, ez dago ikerketa fidagarririk hezkuntza bereiziak eskolan emaitza hobeak dituela ziurtatzen duenik.

Egia da neskak mutilak baino lehenago heltzeak arazoak sortzen dituela irakaskuntzan?

Azterketa zorrotz batzuen arabera, neskak mutilek baino errendimendu eta emaitza hobeak dituzte eskolan, batez ere nerabezaroan. Nire iritziz, hori kulturari lotutako faktoreen ondorio da ziur asko, nesken eta mutilen arteko garundesberdintasunen ondorio baino gehiago. Integrazioak aniztasuna dakar, eta aniztasunak gatazka; baina testuinguru horietan lortzen dira, hain zuzen, helduaroan gizarte konplexu eta gatazkatsuan beharrezkoak izango diren gizartetreibetasunak. Nesken eta mutilen heltze-erritmoetan diren desberdintasunak ez dira nahikoa arrazoi hezkuntzan segregazioa justifikatzeko luzera begirako hobetze-estrategia gisa.

Eskola mistoaren alde sutzuki borrokatu ziren zenbait feminista eskola bereizien alde ari omen dira egun.

Hala da, bai. Feminismoaren sektore batzuek segregazioa aldarrikatzen dute;

eztabaida horretan ari dira Italian, esate baterako. Korronte horren arabera, segregazioa ona da, adibidez, autoestimua hobea izateko. Dena den, auzi partzial horiek ezin dute ezkutatu eskolaren helburuetako bat bizitzarako prestatzea dela; bizitzan, gizonak eta emakumeak espazio komunetan ari dira, eta espazio horietan ardatz izan behar dute berdintasunak, tolerantziak eta errespetuak. Marina Subirats-ek dioenez, “bereizita hezteak zentzua du baldin eta ideia hau hartzen bada abiapuntutzat: sexuek gizarte-funtzio desberdinak izan behar dituztela”. ●



MARGA ALKORTA,

Hezkuntza-premia berezietarako teknikaria:

Wert ministroaren arabera, neskak eta mutilak irakaskuntzan bereiztea ez da diskriminatzea. Zer iritzi duzu zuk?

Gauza bat da ingurune hurbilean duzuna, eta, besterik, esleitu zaizun roletik aritzea. Ikastetxe horietako neska-mutientzat kaltegarria da bereizita bizi beharra eta, horretaz gain, sexista da pentsaera hori. Neurri gogor hori hartzeko emandako arazoak ahulak eta eskasak dira, eta, gainera, pentsaera atzerakoia-ren adierazgarri. Esperientziak irakatsi

dit ikasleria berdindu nahiak desberdintasuna ez onartzea dakarrela, eta oinarri sasizientifikoak erabilia naturaren aurka jokatzeko dela. Wert ministroaren pentsaerak joan den mendera garamatza, Francoren diktadura garaian egin baitzen heziketa mistoaren aurkako etena.

Zergatik ez dira bereizi behar neskak eta mutilak irakaskuntzan?

Haurarentzat, neska zein mutil, familia mikro-mundua da, eta ikastetxea da gizarteratzen lagunduko diona. Eskola, aniztasunean, handitan ezagutuko duen benetako errealitatearen isla izango da. Horri esker egingo dute neska-mutilek, elkarreraginean, gizartearen erreprezentazioa. Ikastetxeak norberaren errealitatearekin errealitate partekaturako jauzia egiten lagunduko dio. Egungo gizartea gero eta anitzagoa eta konplexuagoa denez, bere horretan, hau da, osotasunean eskaini behar die ikastetxeak mundua neska-mutilei; ez urritua eta erdibitua. Horretarako, ikasleak datozen bezala hartu behar dira, bereizketarik gabe. Bestela, susmagarria iruditzen zait emaitzen izenean ezaugarri berekoak taldekatu nahia. Bereizkuntzaren aldeko ikastetxeek heldutasunaren aitzakia erabili ohi dute neska-mutilak bereizteko, baina ez dute azaltzen beste zer neurri erabiltzen dituzten emaitza hobeak lortzearen.

Egia da neskak mutilak baino lehenago heltzeak arazoak sortzen dituela irakaskuntzan?

Bizitzako aro batean lehenago heltzea ere hor dago, baina helduaroan bateratzera iristen dira. Beraz, beste zenbait ezaugarriekin egiten dena egin behar da, dagoena jaso eta bere horretan kudeatu, bistakoa baita, era berean, nesken artean ere, nahiz adin bera izan, biologiari, emozioei eta buru-adimenari dagokienez ez direla batera heltzen. Eta hori arazo ez den bezala, ez luke izan behar mutilak beranduago heltzeak ere. Eta taldekatze-ko garaian alderdi bat solte hartzeak ez al du zerikusiz zuzena lortu nahi dugun

helburuarekin? Ez al genioke atal bati gehiegizko balioa emango, garapenean harmonia eta oreka lortu ordez? Ez al da heziketa bere konplexutasunean hartu eta kudeatu behar? Eta naturala eta komenigarria beren arteko aniztasunean heztea bada, zer dela eta heldutasuna erabili taldekatzeko irizpidetzat? Zergatik berdindu, desberdintasuna aberastasunaren iturri denean? ●




MARIJE APODAKA OSTAIAKOETXEA,

Berdintasunerako teknikaria eta hainbat hezkidetzaproiektutan aritua:

Zure hitzak dira: “Segregazio naturala elkarrekin jardutera iristeko bidea izan daiteke”. Azal ezazu zer den “segregazio naturala”.

Hobeto esanda legoke honela: jendartean gertatzen den emakumeen eta gizonen arteko segregazioa. Hori azaltzeko, marko teoriko jakin batean kokatu behar dugu: genero-teorian, hain zuzen ere. “Generoa” kategoria analitiko gisa hartuta, esan dezakegu generoen arabera gizarteratuak garela, eta prozesu horretan ikasten dugula “emakume” edo “gizon” bezala jokatzeko. Patriarkatuak argi markatzen digu zein den emakumeentzako bidea eta zein gizonentzako. Horretan oinarritu-



ta, hainbat espaziotan eta momentutan, emakumeok eta gizonok bereizi egiten gara. Adibidez, koadrila mistoetan, askotan, bi talde ikusten ditugu: alde batean, emakumeena, eta bestean, gizonena. Eskolan, gauza bera gertatzen da: jolas-tokian neska taldeak eta mutil taldeak ikusten dira, bereizita. Eta, horrela, ia-ia esparru guztietan: enpleguan, kirolean, politikan... Talde horietan, gaiak, harreman-estiloa, jolasak, jarduerak, elkarrizketak, gustuak, erantzukizunak, eta abar desberdinak dira guztiz; gainera, horiek guztiak bat datoz genero-estereotipoekin. Horren ondorioz, “naturala” ematen duena –baina kontuz, berez ez da, gizarteak eraikitako zerbait baizik– aprobetxatu behar dugu berdintasunerako bideak topatzeko; hau da, hortik abiatuta, guneak, momentuak eta aukerak sortu beharko genituzke berdintasunaz pentsarazteko, diskriminazio-egoerak detektatzeko eta bizi-penpen berri izateko.

Bateragarriak al dira genero-berdintasunaren alde eta sexismoaren kontra egitea eta neskak eta mutilak irakaskuntzan bereiztea?

Ez. Ez baldin bada patriarkatuak ezartzen dituen diskriminazioak manten-

tzeko, hots, bi eskola-eredu desberdin egiteko: ohiko feminitatearena eta ohiko maskulinitatearena. Eta hori da feminismitik kanpo defendatzen ari direna. Beste zerbait da feminismoan oinarrituta izan diren hainbat esperientzia, neskak eta mutilak bereizita –gizon taldeak, kasu–. Horiek planifikatuta erabiltzen ari dira jakiteko nola eragiten gaituzten generoek, nolakoak diren genero-identitatearen ezaugarriak, norberak nola bizi duen hori dena, edota genero-erolek nola baldintzatzen dituzten gure bizimoduak. Estrategia horren helburua da diskriminazioa non dagoen konturaztea, eta, egoeraz jabetzeari esker, emakumeak eta gizonak gaitzea patriarkatuaren isla guztiei aurre egiteko.

Eskola mistoaren alde sutsuki borrokatu ziren zenbait feminista, eskola bereizien alde ari omen dira egun.

Nik esango nuke feminismoa ez dagoela eskola bereizien alde, hezkidetzaren alde baizik; zehazki, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunetik abiatzen den hezkuntzaren alde, eta berdintasuna, elkarbizitza, errespetua, autonomia, pertsonaren osotasuna, gizarte-eraldaketa... balioztatzen dituen hezkuntza-ereduaren alde. ■

Itzulpen-mintegi iraunkorra

PATXI PETIRENA

ELHUYAR HIZKUNTZA ZERBITZUAK

IVAPen, itzultzaile-talde baten «mintegi iraunkorra» bideratzen ari naiz bi urteotan: hilean behin, hiru edo lau orduko saioak izaten ditugu, administrazioko testugintzan aurkitutako zailtasun, zailantza eta berriak aztertzeko. Praktika-ren gaineko analisi eta gogoeta horretan, mintegikideen ikuspegitik abiatuz eta bideratzailearena kontraste gisa baliatuz, irizpideak bateratzea eta eguneratzea dugu xede¹.

Ukitu ditugun gaietatik batzuk hautatu ditut iruzkintzeko, adibide gisa. Lehenbiziko partean, argitasunaz eta egokitasunaz zer aipatua baduten esaldi batzuk bereizi ditut, hainbat ikuspuntutatik azter litezkeenak: nagusiki, esapideak, esaldiaren antolamendua eta puntuazioa. Bigarren partean, gai xeheago batzuk iruzkinduko ditut, lexikoari eta gramatikari lotuak.

ESALDIGINTZA

Jakina da akats nabarmenik gabeko esaldiak ere izan daitezkeela desegokiak, irakurleri alferrikako zailtasunak sortzen bazaizkio. Alde horretatik, oso kontuan izatekoak ditugu urteotan atzerakargaz, testu-antolatzaileez, puntuazioaz eta abarrez egin diren lanak. Batzuetan, hala ere, ez gara behar bezain erne ibiltzen:

Nahiz udal gehienek epaitegi honek eskatutako dokumentazioa **igortzen duten** Armiñon, Errigoiti, Ispaster, Ondarroa, El-duain eta Leintz Gatzagako udalek behin eta berriz **urratu dute betebeharrak**.

Asko aldatzen da esaldi hori aditzak arreratzeko badira, perpausen muga komaz seinalatzen bada, eta izen-zerrendari dagokion informazio nagusia aurretik ematen bada:

Udal gehienek **igortzen dute** epaitegi honen eskatutako dokumentazioa, baina **betebeharrak behin eta berriz urratu dute** Armiñon, Errigoiti, Ispaster, Ondarroa, El-duain eta Leintz Gatzagako udalek.

Puntuazioaren eta antolamendu egoziaren ahalak aski baliatu ez diren beste esaldi bat:

Interesatuek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Ez da ezinbestekoa «interesatuek» eta «zuzenean» esaldiaren aurrealdean egoitea (eta, «foru agindu honen aurka» ere tartean dela, hiru elementu segidan, batere zedarritu gabe). Bestalde, «bi hilabete» izen-sintagmak ezin lotua du daraman ezker-osagaia (izatekotan, «biharamunetik aurrerako bi hilabeteko epean» edo izan liteke). Irakurgarriagoa da aukera hau:

Foru agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan. Bi hilabete dituzte horretarako, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hirugarren esaldi bat, aldizkari ofizialetan frankotan irakurria (itzulpen-memoriei esker errepikatzen dugun guzti-guztia ere ez baita eredugarria):

Jakinarazpena bi aldiz egiten saiatu arren, ezinezkoa gertatu da Administrazio honen zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Ez da gauza bera bi aldiz saiatzea zerbait egiten (hori esan nahi da hor) eta «bi aldiz egiten» saiatzea. Bestetik, «jakinarazpena egitea» mendekoan jarri beharrean perpaus nagusian jarriz gero, emaitza naturalagoa da, eta azalpenazko perpausari (-engatik) koma jartzea lagungarri:

Bi aldiz saiatu arren, jakinarazpena egitea ezinezko gertatu da, Administrazio honen zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

¹ Ezinbestean aipatu beharra daukat Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekaria, hamargarren urtea egitera bai-koaz hor, batez beste hilean behin elkartzuz. Horri buruzko iruzkin bat aurki daiteke Gotzon Egiaren artikulua honetan: «Herri administrazioetako itzultzaileen lanbide heziera», *Senez* 30 (2006), <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20061220/egia>

Laugarrenik, frankotan errepikaturik ikusten den esaldi bat, nire iritziz bihurria oso, nahiz eta ideiak zailtasun berezirik ez duen:

Udal honek zenbait espedienteren ebazpenak, lortu gabe, notifikatzen saiatu ondoren, ediktu honen bidez egiten du.

Beharbada ez da ulertuko gaztelaniazko esaldia gabe: «Habiéndose intentado sin efecto por parte de este ayuntamiento las notificaciones de...». Errazagoa eta egoikiagoa ematen du honek, esate baterako:

Udal honek, jakinarazpen arruntak egiterik lortu ez duenez, ediktu honen bitartez jakinarazten ditu zenbait espedienteren ebazpenak.

Ohargarria da euskarazko halako esaldi bihurriak, sarritan, gaztelaniazko adierazpide zurrun batzuen ordainetan emanik agertzen direla. Jatorrizkoek ere eskertuko lukete malgutztea.

Gaztelaniazko zenbait baliabide diskurtzibo euskarara aldatzean sortzen diren iluntasunen adibidetzat hartzen dut honako «las referencias a (...) deben entenderse hechas a (...)» hau:

Las referencias contenidas en este Decreto al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca y a la Dirección de Calidad Alimentaria **deben entenderse hechas**, en cada momento, al Departamento que en virtud del Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamento de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y a la Dirección, que en virtud del Decreto de estructura orgánica y funcional, ostenten las competencias en la materia.

Dekretu honetan ageri diren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eta Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzari **buruzko erreferentziak** gai bakoitzeko eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen dekretuaren arabera dagokion sailari

buruzkoak eta egitura organikoaren eta funtzionalaren arabera dagokion zuzendaritzari **buruzkoak direla ulertu behar da**, hurrenez hurren.

Nekez ulertzen da, «...-ela ulertu behar da» horretara iristerako haria galdu dugu eta. Zenbait moldaketa egin ditugu mintegian, oinarri hau hartuta:

Dekretu honetan Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza **aipatzen direnean, ulertu behar da hauek aipatzen direla:**

ZENBAIT PUNTU XEHE

Bidezko. Joera zabaldu da euskaraz *bidezko* itzultzeko gaztelaniazko *correspondiente, oportuno, pertinente* eta gisakoak. Askotan, ordea, ez dute halako esanahi markaturik (ez dute, inondik ere, 'zuzen' esan nahi); zenbaitetan *dagokion* ongi dator, eta, beste batzuetan, ezer ez da behar. Zentzu handirik ez du «a fin de actualizar los datos citados en las correspondientes bases de datos» honela itzultzeak: «Horrela, bidezko datu-baseetan eguneratu ahal izango dira datu horiek».

Beharrezko. «IFZ eskuratzeko beharrezko dokumentazioa hau da». Izenlagun funtzioan erabiltzen da *beharrezko* zenbaitetan² («beharrezko dokumentazioa»), baina nekez har dezake perpaus bat loturik: «*IFZ eskuratzeko beharrezko* dokumentazioa hau da». Halakoetan, beste honetara jo ohi da: «*IFZ eskuratzeko behar den* dokumentazioa hau da». Beste modu batean ere bai, jakina: «Dokumentazio hau behar da IFZ eskuratzeko».

Balizko. Susmoa hartzen dugu euskaraz «egoera honek *balizko* deskoordinazio baten arriskua sortzen du» irakurrita, adibidez. Itzulpen-memoretako adibideak aztertuta, ikusi dugu errazegi sartzen dugula *balizko*, kasik automatikoki, hainbat *posible, potencial* eta besteren

ordainetan³. Gure adibidearen atzean, esaldi hauxe zegoen: «esta situación provoca el riesgo de una posible descoordinación». Normalena «egoera honek deskoordinazio-arriskua dakar» esatea da.

Koma erabakigarriak. Puntuazioa, lehenago ikusi dugun bezala testuaren antolamendurako oso garrantzitsua izateaz gain, erabakigarri gertatzen da esaldi batzuen esanahi zehatza argitzeko. Esate baterako, gaztelaniazko esaldi komagabe honen ordainetan, ez da zehatza euskarazko komaduna:

Durante el año 2013 se realizarán seis pruebas destinadas a la obtención del certificado de aptitud profesional.

↳ 2013. urtean, sei proba egingo dira, gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortzeko.

Euskarazko horrek, gaztelaniazkoak ez bezala, seira mugatzen ditu egingo diren (era guztietako) probak. Gaztelaniazkoak, berriz (jartzen digutena sinesten badugu behintzat...), esaten du hor aipatzen den gaitasuna lortzeko sei egingo direla, baina ez du ixten bestelako proba batzuen aukera.

2013. urtean, sei proba egingo dira gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortzeko.

2013. urtean, gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortzeko sei proba egingo dira.

Hemen aipatutakoak eta beste asko izan ditugu hizpide sarritan mintegian. Nahiz esaldiak ez beti lantaldearen beraren testuetatik hartuak izan, balio izan digute aztertzeko eta pentsatzeko, egunero sortzen ditugun testuen zehaztasuna, argitasuna eta egokitasuna helburu. ■


² OEHko adibideetan, atributua da ia beti, «beharrezko(a) da» erakoetan.

³ Kontuan hartzekoa Juan Garziak 31 *eskutik* blogean egindako iruzkina: <http://31eskutik.com/2012/11/02/balizko-ausazko-premiazoak/>

Dropbox: Interneten fitxategiak gordetzeko sistema

IRENE FERNÁNDEZ

IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atala



Azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoan azpiegitura teknologikoak modernizatzeko proiektuek indar handia hartu dute. Horien artean hodei-konputazioa edo *cloud computinga* bultzatzea dago: alegia, aplikazioak eta datuak “hodeian”, Interneteko amaraunean, exekutatzeko eta biltegitratzea.

Konputazio mota honek baditu hainbat abantaila administrazio jardueretarako:

- Toki ezberdinetatik, datu berdinekin egin daitezke lan (lantokitik eta exetik, adibidez).
- Dokumentuak parteka daitezke.
- Softwarean aurrezten da.
- Erraz ezarri eta erabiltzen da.
- Hornitzaileak berak egiten dituzten kudeaketa, mantentze lanak eta softwarearen eguneraketak.
- Zerbitzua edozein momentutan utzi daiteke.
- Zerbitzuen eskaintza zabala da.
- ...

Baina baditu desabantailak ere:

- Konfidentzialak izan daitezkeen datuak kanpoko zerbitzari batean jartzean pribatutasuna galtzen da.

- Norberaren ordenagailuan baino motelago ibiltzea gerta daiteke.
- Konexio arazoak daudenean ezin da lanik egin.
- Aplikazioek aukera gutxiago izan ditzakete.
- ...

Hodei-konputazioko zerbitzu batzuk erabat doakoak dira; beste batzuk, ordea, ordainpekoak; eta badira baita doako bertsioan mugatuak diren zerbitzuak, baina ordainduz gero hobetzen direnak ere.

Posta elektronikoa da hodei-konputazioaren adibide ezagunena. Gmail web bidezko posta-zerbitzuan, adibidez, mezuak ez daude gure disko gogorrean, hornitzailearen zerbitzarietan baizik. Mezuak kudeatu eta bidaltzeko ez dugu gure ordenagailuan inolako aplikaziorik instalatu behar.

Cloud computingaren beste ohiko erabilera bat biltegiatzea da. Gure datu eta dokumentuak gordetzeko aukera ematen diguten zerbitzu ugari daude sarean. Hainbat lagunen artean dokumentuak partekatzeko aukera ematez gain, gure ordenagailuko disko gogorarekin sinkroniza ditzakegu biltegi birtual horiek, eta horrek ahalbidetzen du toki edo ordenagailu ezberdinetan lan egitea.

Biltegiatze zerbitzu horietako bat Dropbox¹ da: Interneten fitxategiak gordetzeko sistema. Zerbitzu horrek aukera ematen du erabiltzaileen fitxategien kopia bat bere zerbitzarian gordetzeko; Interneteko konexioa eta web-nabigatzailea duen edozein ordenagailu edo gailu mugikorretik kopia horietara sartu ahal izango gara gero. Azken finean, Dropboxen helburu nagusia gure fitxategien segurtasun kopiak gordetzea da eta horiek gailu desberdinetan sinkronizatu ahal izatea.




Dropbox erabili nahi badugu, lehenengo eta behin aplikazioa gure ordenagailuan instalatu behar dugu (Windows, Mac, Linux edota zenbait sistema mugikorretarako bertsioak daude). Gaztelerazko bertsioa eskuragarri dago 2011z geroztik (euskarazkoa oraindik ez).

¹ <https://www.dropbox.com/>




Instalatuta daukagunean, gure sisteman Dropbox izeneko karpeta berri bat agertuko zaigu. Karpeta horretan gordetzen ditugun fitxategi edota karpeta guztiak automatikoki gordeko dira Dropboxen zerbitzarietan. Hau da, gure karpeta edo fitxategi horien segurtasun kopia bat izango dugu Interneten, eta informazio horretarako sarbidea Dropboxen webgurutik izango dugu.



Fitxategi bat aldatu eta gordetzen dugun bakoitzean, Dropboxen eguneratu egiten da. Fitxategi baten bertsio desberdinen zerrenda ikusiko dugu eta horietatik nahi duguna aukeratu dezakegu. Ezabatutako fitxategiak errekuaratu ere posible da (doako bertsioan, 30 egunetara mugatzen da fitxategien historia).

Dropboxek ematen duen beste aukerarako bat fitxategiak partekatzea da. Horretarako, guk nahi dugun pertsona edo pertsona mezu elektronikoa bidali behar diegu Dropboxetik (zerbitzuan alta emanda egon behar dute pertsona horiek). Hortik aurrera, partekatutako karpeta horretan sortzen diren fitxategi edo karpeta guztiak erabilgarri egongo

dira karpeta partekatzen duten pertsona guztientzat. Aukera hori oso lagungarria da posta elektronikoz bidali ezin diren fitxategiak partekatzeko, baita proiektu berean lanean dabilen jendeak batera lan egiteko ere.



Dropboxek 2 GB-erainoko doako biltegiatzea eskaintzen du kontu bakoitzeko, eta zerbitzura gonbidatzen dugun lagun bakoitzeko 250 MB gehiago lortuko ditugu (8 GB gehienez ere). Hala ere, tamaina horretatik gora behar duten erabiltzaileek badute tamaina handitzeko aukera, hilean edo urtean dagokiona ordainduz.



Badira sarean Dropboxez aparte beste hainbat biltegiatze zerbitzu: hala nola, Google drive, Skydrive, icloud, Amazon cloud drive, Sugarsync... Norberari egokitu zaio zerbitzu bakoitzaren abantailak eta desabantailak aztertuta eta bere beharrezan araberaz zein erabiliko duen erabakitzea. ■

Ariketak79

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

I. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* kontuan hartuz, aukeratu zuzena eta ✓ ikurrak markatu:

1. Lau segurtasun _____ hil eta hamahiru zauritu dituzte kontrolatugabe batzuek egindako erasoan.

goarda / guarda

2. XIX. mendean, burdinbideek hirien arteko garraioa erraztu eta bizkortu zuten, eta industria berria lehengaiz eta langilez _____.

goarnitu / hornitu

3. Espedizioan, bi ontzi laguntza eta defentsakoak ziren, _____ arinak, soldaduz eta marinelez beteak.

goeleta / goleta

4. Sailburuak _____ defendatu zituen legeari egindako aldaketa sakonak.

gogatsu / gogotsu

5. Jaurtiketa libreak _____ estiloan egin ditu: baloia bi eskuekin jaso, belaunetan ipini eta jaurtiketa egin.

goilara / koilara

6. Haragiak, arrautzek, esnekiek, koko eta palma olioek _____ asko dute.

goipe / koipe

7. Gure izebak esperientzia _____ bat bizi izan zuen iragan astean: hilda dagoen aitonaekin hitz egin zuen.

goitiar / goitar

8. Mirari telebistan arituko da _____ kolaboratzaile lanetan. Printzipioz, bost hilabeterako kontratua du.

goizaro / goizero

9. Eskuizkribuetan, doktrinari buruzko sermoiak daude, _____ testuen komentarioak, bertsoak, koplak...

goizpar / ebanjelio

10. Datorren astean, gure seme-alabak baratza _____ gabe lan egiten duten baserritarren etxera joango dira.

galdeatu / goldatu

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



2. “Itzulpen-mintegi iraunkorra” artikulua ren egileak aipatzen dituenen ildotik, saia zaitez honako esaldi hauek egokitzten:

1. Nahiz eta Berdelaren Eguna hainbat aldiz antolatzen saiatu, baztertu egin da krisialdi ekonomikoarekin lotutako arrazoiengatik.
2. Interesdunak ezin ditzakeenean jarri berehalako etendura lortzeko beharrezko bermeak, etendura hori erabaki daiteke, baina aurretik nahikoak diren bestelako bermeak jarri beharko dira.
3. Kontratatorako eskumena duen bidezko udal organoak ebatziko ditu epe barruan aurkeztu diren erreklamazioak.
4. Proiektuaren kalifikazio teknologikoari dagokionez, ikerketa-kostuak eta espero diren balizko irabazi ekonomikoak proportzioan daude.
5. Euskarak komunikazio jardunean urrats handiak egin dituen arren erakunde publiko zehatz batzuetako agerraldi publikoetan eta hedabideekiko jardunean aurrerapen hori ez da islatu.
6. Foru dekretu honetan zerga bereziei buruz egindako aipamenak martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako fabrikazio zerga bereziari, eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 2. xedapen orokorrean aipatzen den fabrikazio zerga bereziari buruzkoak direla ulertu behar da.
7. Interesatu horiek eskura dituzte, bai administrazioko espedientea, bai bidezko agiri teknikoak, udaletxeko 7. solairuan dagoen Hirigintza Sailaren Atalean.
8. Bifidobakterio horiek, zientifikoki frogatu gabe dauden balizko onura batzuez gainera, gure hesteetako florako bakterio-populazioaren oreka finkatu egiten dute.
9. Izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko, fitxategiaren arduradunak datuak baimenik gabe tratatzeko beharrezko neurri teknikoak hartuko ditu.
10. Nahiz eta administrazio bakoitzak komeni zaion eredia aukeratu behar duen langile publikoentzako garapen planen ezaugarri, balorazio eta baliabideetan hobetzeko asko dagoela argi dago.

3. Aukera ezazu bikote bakoitzeko esaldi egokiena; horretarako, “Bulegotika” artikuluko hitz zerrendara jo dezakezu:

1. a) Web-arakatzailerek hipertestu-dokumentuak bistara ditzakete.
b) Web-bilatzaileek hipertestu-dokumentuak bistara ditzakete.
2. a) VinAccess®: autentikazio anitzeko sistema.
b) VinAccess®: autentifikazio anitzeko sistema.
3. a) Pantaila-bereizmena pantailan erakuts daitekeen pixel kopurua da.
b) Pantaila-erresoluzioa pantailan erakuts daitekeen pixel kopurua da.

4. a) Gaitu aukera hau buletdun zerrendak automatikoak izan daitezen.
b) Gaitu aukera hau bulet-zerrendak automatikoak izan daitezen.
5. a) Tipografia-akatsak autozuzenketarekin detektatzen dira.
b) Tipografia-akatsak zuzenketa automatikoarekin detektatzen dira.
6. a) Gako-hitzen bidezko enpresen bilatzailea.
b) Hitz-gakoen bidezko enpresen bilatzailea.
7. a) Eduki erabilerraz bat egiteko, irudiek testu alternatiboa eraman behar dute.
b) Eduki erabilerraz bat egiteko, irudiek ordeko testua eraman behar dute.
8. a) Izenburua fitxategiaren propietateetan zehaztuta dago.
b) Titulua fitxategiaren propietateetan zehaztuta dago.

4. Bilatu eskuineko zutabeen hitz bakoitzari dagokion sinonimoa:

1	narriatu		bateratu
2	amarru		beharbada
3	suspertu		apuntatu
4	arrangura		maltzurkeria
5	trumilka		koaderno
6	akidura		puztu
7	menturaz		benetan
8	uztartu		bizkortu
9	zinez		berriketa
10	kaier		tropelean
11	destatu		adjudikatu
12	esleitu		hondatu
13	kalaka		atsekabe
14	hanpatu		neke

5. Osatu esaldiak lehenengo ariketako hitzekin (ez dira hitz guztiak agertzen):

1. Mendian galduta zebiltzan hiru mendizaleak erietxera eraman zituzten _____ sintoma nabarmenak baitzituzten.
2. Irakasleen kexuak entzuten ditugu maiz, ikasle askok «zeinen gaizki idazten duten»; eta entzun ohi da, baita ere, zenbat _____ den idatzizko hizkuntza, bereziki komunikabideetan.
3. Ekonomia _____ arren krisiak hor jarraituko du.
4. Teknologia berriak eta euskara _____ dituen lehen azoka hartuko du Donostiak asteburu honetan.

Soluzioak79

1. 1. guarda 2. hornitu 3. goleta 4. gogotsu 5. koilara
6. koipe 7. goitar 8. goizero 9. ebanjelio 10. goldatu
2. 1. Nahiz eta hainbat aldiz saiatu, **Berdelaren Eguna antolatzea baztertu egin da**, krisialdi ekonomikoarekin lotutako arrazoiengatik.
2. Interesdunak ezin ditzakeenean jarri berehalako etendura **lortzeko behar dituen** bermeak, etendura hori erabaki daiteke, baina aurretik nahikoak diren bestelako bermeak jarri beharko dira.
3. Kontrataziarako eskumena duen **bidezko** udal organoak ebatziko ditu epe barruan aurkeztu diren erreklamazioak.
4. Proiektuaren kalifikazio teknologikoari dagokionez, ikerketa-kostuak eta espero diren **balizko** irabazi ekonomikoak proportzioan daude.
5. Euskarak komunikazio jardunean urrats handiak egin ditu, **baina aurrerapen hori ez da islatu** erakunde publiko zehatz batzuetako agerraldi publikoetan eta hedabideekiko jardunean.
6. Foru dekretu honetan zerga bereziak **aipatzen direnean, ulertu behar da honako hauek aplikatzen direla**: martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako fabrikazio zerga berezia eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 2. xedapen orokorrean aipatzen den fabrikazio zerga berezia.
7. Interesatu horiek eskura dituzte, bai administrazioko espedientea, bai **bidezko** agiri teknikoak, udaletxeko 7. solairuan dagoen Hirigintza Sailaren Atalean.
8. Bifidobakterio horiek, zientifikoki frogatu gabe dauden **balizko** onura batzuez gainera, gure hesteetako florako bakterio-populazioaren oreka finkatu egiten dute.
9. Izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko, fitxategiaren arduradunak datuak baimenik gabe **tratatzeko behar diren** neurri teknikoak hartuko ditu.
10. Administrazio bakoitzak komeni zaion eredia aukeratu behar du, **baina argi dago** langile publikoentzako garapen planen ezaugarri, balorazio eta baliabideetan hobetzeko asko dagoela.

3. 1. a 2. b 3. a 4. a 5. b 6. a 7. b 8. b

4.

1	narriatu	8	bateratu
2	amarru	7	beharbada
3	suspertu	11	apuntatu
4	arrangura	2	maltzurkeria
5	trumilka	10	koaderno
6	akidura	14	puztu
7	menturaz	9	benetan
8	uztartu	3	bizkortu
9	zinez	13	berriketa
10	kaier	5	tropelean
11	destatu	12	adjudikatu
12	esleitu	1	hondatu
13	kalaka	4	atsekabe
14	hanpatu	6	neke

5. 1. Mendian galduta zebiltzan hiru mendizaleak erietxera eraman zituzten **akidura** sintoma nabarmenak baitzituzten.
2. Irakasleen kexuak entzuten ditugu maiz, ikasle askok «zeinen gaizki idazten duten»; eta entzun ohi da, baita ere, zenbat **narriatu** den, oro har, idatzizko hizkuntza, bereziki komunikabideetan.
3. Ekonomia **suspertu** arren krisiak hor jarraituko du.
4. Teknologia berriak eta euskara **uztartu** dituen lehen azoka hartuko du Donostiak asteburu honetan.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Bixi

XABIER ARTOLA
IDAZLEA



Beti izan naiz ehiza txakur ona, bizkorra bizkorretan: Bixi jarri zidaten izena etxe honetara iritsi orduko, hortik atera kontuak! Hamalau urte hauetan, oilagorretara irten den guztietan berarekin eraman izan nau Joakin alkizarrak. “Bixi, erne!” “Han, Bixi!” “Segi hortik!” “Etorri hona!” “*Takalo*, Bixi, *tomaki!*”

Joakinek ez daki, noski, zer den ehizan ni gabe ibiltzea. Makina bat saio jo ditugu biok Ernio aldeko malkar horietan gora eta behera: ni aurretik, usaian –atzetik bera, segi ezinik gehienetan–, hara-honaka urduri, hegaztia begiztatu eta jartzen natzaion arte, eskuineko beso airean, *kieto*. Orduan ez, orduan ez dago ni handik mugiaraziko nauenik... Nagusiak, eskopeta kokospera jaso, berak bakarrik dakien bezala destatu, eta, oilagorra ozta aieratzen hasten delarik, danba tiro egin eta botatzen duen arte.

Jario txikiko ontziari urak bezala, baina, sasoiak ihes egin dit neuri ere poliki-poliki. Basora irten eta herren egiten dut. Ez naiz gauza, lehen bezala batetik bestera lasterka nekatu gabe ibiltzeko, aise akitzen naiz. Orain hurrengoan, artzainarekin berriketan ari zela, zer esango nire nagusi horrek, eta ez naizela gai ehizarako, aizu, horixe esan ziola iruditu zitzaidan. Min handia eman

zidan nagusiari hori entzuteak; baina, egia esan behar badut, arrazoi du, gauzak halaxe dira.

Gaur goizean, eguna zabaltzerako atera dira etxetik senar-emazteak, Ordiziako feriara, noski, aspaldiko partez. Joakinek ederki daki nolakoa behar duen ehiza txakurrak, oilagorretan ona aterako bada: halako belarriak, ez dakit nolako isats ikara, nik garai batean nuenaren antzeko gorpuzkera... “Horko hori gustatzen al zaizu, andrea?”. “Ez du itxura txarrik, ez; har ezazu bera eta goazen etxera”. Halaxe esango zioten elkarri. Biziki ongi ematen die tankera nagusiak ni bezalakoei, bai horixe.

Bazkal ondoan, eguneroko lo kuluxka egin eta jaiki denean, eta ilunabarra arte itxaron gabe, bila etorri zait; mendi aldera jo dugu gaur, ez erreka bazter laiotzera. Ez da oilagor garaia, eta hego haize punttua zuen, gainera, eguraldiak. Nagusiak ez du gogoko horrelako giroa denean ateratzea baina, hala ere, hor joan gara biok, beste askotan bezala.

Eta eztarria trabatzen zidan egonezina areagotu egin zait, txabolan geratu den belarri-erori etorri berriaren zaunka txikiak aditu ditudanean: errezelo txarra hartu baitiot, izan ere, eguerdian txabolako atetik sartzen ikusi dudanetik, berehala

igarri diot. Eskuko telefonoa hartu eta argazki batzuk egiten ibili zaio Joakinen emaztea; egia esan behar badut, niri ere atera dit bat edo beste, aspaldiko partez.

Bixi! Tiroak Ernio mendiaren sortaldeko magal osoa goibeldu du bere herio hotsaz. Oihartzunak belarriak zolitu dizkio txabolan erdi lo geratua zen Bixiri. Iluntzean, berriz, gauero bezala etorriko zaio nagusia txabolara, jatekoak eta ura ematera. Eta ontziaren jariatik isuriko den ur xirripa meheak oinak bustiko dizkio Bixi gazteari, edatera hurbiltzen denero. ■

Amaterasu du izena japoniarren eguzki amandreak, eta haren ondorengotzat zuten oraindik orain beren burua enperadoreak eta bere familiak. Jainkosa horren egoitza diren Geku eta Naiku santutegietan, Ise hirian, oraino indarrean da bertako hainbat eta hainbat eraikin hogeitertarik behin suntsitzeko –eta, garai batean, bai erretzeko ere– ohitura. Hogeitertetik hogeitertera, eraikin zaharra, barruko altxor guztiak bertan direla, eraitsi, eta aldameneko orubean berria eraiki: horixe bizi legea. Hazi berriak ekarriko dituen landarea garatuko bada, ereindako hazia lur azpian usteltzera errenditzen duenaren kidekoa.

Zaharkitzapen programatuak eztabaida berpiztu du

Eguneroko produktuen iraupena fabrikatzaileek mugaturik datorrela frogatu dute

JON ARIZKUN
KAZETARIA

Zulatua duzu bizikleta. “Zulatua konpontzekotan, gurpila askatu behar dut, kamera estalkitik atera, zulatua non den bilatu, ingurua lixatu –lixa-paperik ez duzu–, partxeak eta itsasgarria erosi... Arratsalde bateko lana!”. Zuzenean bizikleta-dendara joan eta kamera berria erosi duzu...



Lurrun-eltzearen balbula belztua duzu. Barazkietan partikula ilunak ikusi ote dituzun, jan ote dituzun, kezkatan zara. Desmuntatu duzu delako balbula, garbitu duzu, janaria maneatu duzu. Belztua da berriz balbula... Ez zara hagitz gusturra. “Eltze berria erosi behar dugu!” erran dute etxean...

Jaka bakeroaren lepokoa arrunt higitua duzu. Litsak ageri dira nabarmen. “Ez duzu janzteko moduan!” erran dizute. Ez duzu haren parekorik aurkitzen. Gustukoa ikusi duzularik, urrearen prezioan da salgai. Etxean duzu jaka, nola edo hala konponduko zenuke, baina joste lana ez du makala...

“Erosi, bota, erosi” bizi zara, bizi gara. Ez da halabeharra, ez da zoria, deusek ez du garai batean bezainbertze irauten. Horretan dira adinekoak. Orain dakigunez, arrazoiaren jabe dira, arrunt. Orain bada-

kigu etxetresna elektrikoek, telefono mugikorrek, pantyek, iPod-ek, ordenagailuek eta errateko diren guzietan ere iraugipendata jakina dutela, erabilera-kopuru mugatua, ez direla “betiko”, ekoitzi dituzten une berean programatu dutela, fabrikatzaileek beraiek, haien heriotza...

Konponketa-lekuak desagertuak dira leku frankotan. “Zaharra bota, berria erosi” dugu oraingo legea. Anitzetan, merkeago da zerbait erostea, hura leheneratzen ibiltzea baino. Behin baino gehiagotan entzun dugu. Inprimagailua murturatu, teknikariari hots egin, eta haren erantzuna: “Hobe duzu berria erostea. Ez dago zure inprimagailua konponduko duenik. Aparailu zaharra konpontzea baino hobe duzu berria erostea!”. Egun, badakigu inprimagailuek kontadore berezia dutela –inprimatze kopuru jakina agintzen duen txip bat–, eta erran delako

‘Zaharra bota, berria erosi’ dugu oraingo legea

kontadoreak aurrez zehazturik duen kopurua gainditurik inprimagailuak ez du lanik egingo. Baina, orduan –mirarietan mirari!– txipa berrabiarazten asmatzen baduzu, inprimagailua lanean hasiko da, berria balitz bezala. Horra, bada, zaharkitzapen programatuaren froga...

1928an sortu omen zen kontzeptua AEBetan, garaiko aldizkari batean ekoizle-saltzaile halako batek aldarrikatu zuenez: “Alferrik galtzen ez den artikulu, produktu edo salgaia, hondamena da negozioentzat”. Joan den mendeko 30eko hamarkadan, errateko, fabrikatzaile nagusiek erabaki zuten bonbillak ez zuela iraun behar mila ordu baino gehiago. Alabaina, Edisonen lehenengo bonbillak berak mila eta bortzehen ordu iraun zuen! Ekoizleek, ordea, negozioaren etekin azkarrari opa zioten kontsumitzailearen beharrari begiratu ordez, eta ehun urte ere irauten zuen bonbilla baztertu eta mila ordu irauten zuena saltzea adostu zuten. Ia mendea iragan denean, lanari lotu zaizkio kontsumitzaileak, egoera irauli eta itzularaztea xede.

Erosi, bota, erosi

2011n, *Comprar, tirar, comprar* (Erosi, bota, erosi) izeneko dokumentala aurkeztu zuen Cosima Dannoritzer zinema zuzendari alemanak. Ordu arte, anitzek ez zuen inoiz zaharkitzapen programatuaz solasik entzun. Jakina, oinezkoa aspaldi konturatu zen etxean zituen gailu teknologikoek garai batean baino bizitza

laburragoa zutela. Materialen kalitateari egotzi ohi zitzaion produktuen iraupen ttikia. Dannoritzerren dokumentalak, ordea, bertzelako egia erakutsi zuen. Sare sozialek egin zuten gainerakoa. Bolo-bolo zabaldu zen dokumentala, eta, batik batik, haren mezua: kontsumo-gaien bizitza laburraren atzean bada ezkutuko arrazoirik; adineko jendearen nostalgia hori, “lehen gauzek orain baino hagituz luzeago irauten zuten” ez da, bertzerik gabe, sasoa joan eta gero egin ohi den purrusta hutsala.

Aipatu dugun dokumentalak frogak erakutsi zituen, bistara ekarri zituen kontsumo-gaiak iraupen handia izan ez dezaten zenbait fabrikatzailek egin ohi dituzten amarruak. Dokumentalean ageri diren bateko eta bertzeko pertsonaiak anitz modutan borrokatzen dira zaharkitzapen programatuaren kontra eta, horien artean, badira produktua –inprimagailuaren txipa, kontadorea, kasurako–, *manipulatu* eta berriz abiarazi dutenak. Badira, halaber, delako fabrikatzailearekin harremanetan jarri direnak ere; filmean ikusten ahal denez, batek, errateko, erreklamazio formala igorri ordez, poema bat igorriko du, kexa aldarri. Anitz dira dokumentaleko ekintza moduak, eta filmaren eragina arrunt handitu da Internet bidez. Errateko, zenbait erabiltzailek etxeko inprimagailua berrabiarazi du filmeko informatikari errusiarraren oharrei jarraiki.

Dokumentala erakutsi duten leku guzietan ere kezka eta eztabaida piztu da ikusleen artean. Nork beretik jardun du horretan. AEBetan, deshazkundeaz hasi dira galdezka. Alemanek teknologiaran gaitzei eta kontsumitzailearen eskubidei eman diete, oroz gain, arreta. Frantzian, birziklatzea lehenetsi dute. Belgikan, dokumentalak eragin duen arrangurak legeria aldatzera eraman ditu agintariak, produktu baten erabilgarritasun bizitza salgaiaren etiketak garbi jaso dezan.

Comprar, tirar, comprar-ek erakusten dituen irudietan bortitzenak Ghanakoak

GERO ETA ZABOR GEHIAGO

“Naturalezak ez daki deus zaborraren gainean. Zinez, kontzeptu hori ez dagokio izadiari. Gizakia da Lur planetan inork nahi ez duen zerbait ekoizten duen izaki bizidun bakarra. *Homo sapiens* gu? Hondakin metalikoak birziklatzeko teknika berriak asmatu dira, baina kimikariak, oro har, eta farmazialariak, partikularzki, arrunt jende konplikatu da... Zenbait hiritan, gure organismoak nikotina gehiago barneratzen du uraren bidez, erretzaileen kearengatik baino. Halaber, gure gorputzak hondamendira daramatzagu, baina ez gure gorputzak barneratzen dituen elikagaiengatik, etxeetaraino heltzen zaigun ur edangarriak daramatzen hormona sintetikoak absorbitzen ditugulako baizik... Hondakin elektronikoak ez dituzte kezka iturri, soluzioak aunitz baitira, baina, aldiz, zer egin hondakin kimikoekin? Soluzioak ez dira merke, ezta berehalakoak ere!”

(Gunter Pauli, Ekonomia Urdinaz)

COSIMA DANNORITZER

Errealizadore eta gidoilari da, Alemanian jaioa. Sorterrian ez ezik, Erresuma Batuan eta Espainian lan egina da hainbat telebista kanaldako. Bartzelonan (Herrialde Katalanak) bizi da joan den zazpi urtetik hona eta Katalunian, Frantzian, Alemanian, AEBetan eta Ghanan egina du 2011n aurkeztu zuen *Comprar, Tirar, Comprar* (Erosi, Bota, Erosi) dokumentala. Ekonomia modernoaren oinarrian diren enpresa-praktika makurraren frogak ematen ditu, eta horrek ingurugiroari dakartzkion ondorio beldurgarriak azaltzen. Filmak zaharkitzapen programatuaren historia kontatzen du, ekonomia eta ingurugiroa salbatzeko hainbat ekonomialari, diseinatzaile eta intelektuaren analisiarekin batera. Zaharkitzapenaren kontra diren ekintzaile frankoren lekukotasunak ere ikusgai dira dokumental honetan, eta, bertzeak bertze, kontsumitzaile akituek Apple-ren kontra irabazi zuten auzi judizialaren berri ematen du, behin eta berriz bota behar izaten baitzituzten beren iPod-ak bateriak agortuak zituztelako.

Honako dokumentala baino lehen, adibidez, Dannoritzerek Bartzelonari buruzko ikus-entzunezko guziz berezia egin zuen, *Si la basura pudiera hablar* (Zaborra mintzatu ahal balitz), non hiriaren argazkia egiten baitzuen zaborra bitarteko harturik. *Amnesia electrónica* (Amnesia elektronikoa) lana ere egina du, agiri elektronikoetan gordeak dituen oroitzapen pertsonaletan barna egindako bidaia. Euskarri digitalek urte guti irauten dutenez, Dannoritzerek galdegiten du ea guri buruzko informazioz izanen ote den geroan, edota ondoko belaunaldiak hainbat zinta eta diskete izanen dituzten eskuartean, ordurako erabiltzeko modurik gabe, euskarri zaharkituan jasoko dituztelako.



dira, inondik ere, Agboglobloshie-ko zabortegikoak, hain zuzen. Hantxe pilatzen dira europarron hondakin elektronikoak, hantxe biltzen dira ghanatarrak, metal bila. Afera gero baino gero latzago da, zabor elektronikoa urritzen ez baina gehiago sortzen ari baikara europarrak, etengabe. Errateko, dokumentala egin zuten garaian, hilean 300 kontainer handi iritsi ohi ziren erran delako Agboglobloshieko zabortegira. 2012an, hilero 800 kontainer dira.

1928an sortu zen zaharkitzapen programatua kontzeptua AEBetan

Dokumentalak, bertzeak bertze, enpresa handiek produktu baten bizitza berriaz laburtzeko estrategia erakusten du. Alabaina, horren kontrako salaketarekin batera, zaharkitzapen programatuari aurka egiteko negozio alternatiba berriak ere erakusten ditu.

Adibidez, OEP Electrics taldeak ehun urte irauten zuen bonbilla gogoan hartu, birdiseinatu eta salgai jarri du berriz. Ekimenak ugaldtu egin dira han eta hemen, mundu berri bati atea irekirik, eta egitasmorik inportanteenen artean da Michael Braungart eta William McDonough-ren *cradle to cradle* [sehaskarik sehaskara] kontzeptu berria, ekonomia berdea giblean utzi eta ekonomia urdina helburu duena. Gunter Pauli ekonomialari eta ekintzaile belgikararen lantegian asmatu zuten beren kontzeptua Braungart eta McDonough-k 1992an. Paulik erran ohi duenez, “afera

Compror, tirar, comprar dokumentalak erakusten dituen irudi bortitzenak Ghanakoak dira



ez da gutiago kutsatzen duten produktu berdeak merkatuan jartzea, ez dezaten kutsatu bertzerik”.

Ekonomia Urdinaren garaia

Uste genuen berdetasunaren aroan ginelena, baina egunetik egunera gero baino gero arinago dabilen munduan bata bertzearen ondoan datoz berritasunak, hala produktu nola kontzeptuetan. Gunter Paulik, errateko, Ecover enpresa ekologikoa sortu zuen, aitzindari baita mundu mailan. Hogeita hamabortz urte ere badira Pauli lanean ari dela, eta ekonomia berdearen alde egin du hasmentatik. Alabaina, haren iritziz ekonomia berdeak ez du etorkizunik “aberatsendako bertze inorendako ez delakoz, eta erranak erran jasangarria ere ez delakoz”, dio berak. Haren orde, ekonomia urdinaren alde ari da buru-belarri lanean. Lurra du zutarri Paulik, denendako nahi ditu produktuak, naturalezan eta zientzian oinarri izanen duten ekoizpen urdinak. Ez da fantasia hutsean ari, 1994an Zero Emisioen Ekimen eta Ikerketa ZERI sare globala abiarazi zuen, eta handik hona 50.000 lanpostu eta 1.500 enpresa baino gehiago sortu baititu. Haren proiektuetan barne dira, errateko, kafe-hondarren bidez goi mailako kalitateko ondo jan-

garriak landatzea, laranja-azalen hondakinez egindako garbikari biodegradagarriak sortzea, edota ohiko gasolindegia ibilgailu elektrikoak birzamatzeko toki bihurtzea.

Paulik, bertzalde, egungo krisi latzari buruzko hagitz ikuspegi partikularra du. Haren irudiko, historian ikusten ahal dugunez, beti izan dira krisiak. Oraingoan, ordea, krisiak bata bertzearen gainean heldu zaizkigu. “Krisia etxebizitza bakoitzean dago. Langabezia non, han da krisia. Eguneroko bizian irensten ditugun toxikoeak sortzen duten giro osasunaren kontrako hori ere krisiaren parte da. Banaka harturik, arunt aise konponduko genituzke aferok, baina denak batera trumilka erortzen zaizkigularik, gure immunosistemari gogor erasotzen diote, estresa eragiten digute. Kontsumitzaileak jakin behar du zer nahi duen, zer behar duen, zein girotan bizi nahi duen. Ur, elikagai, etxebizitza, osasun, energi eta lanari buruzko beharrak nola aseko dituen erabaki behar du”. Horrela eginez gero, gure buruak, eta mundua bera, salbatzeko gai izanen gara... menturaz!

Paulik ez du ontzat hartzen etiketa berdea duen bateriarik. Haren erranetan, produktu berdeak gutiago kutsatu ohi badu ere, beti da kutsagarri. “Gutixko ebas-

‘Sehaskarik sehaskara’ kontzeptuak ekonomia berdea gibelean utzi eta ekonomia urdina du helburu

ten duelarik ere, ohoina beti da ohoin! Bateria berdea? Telefonía mugikorrari dagokionez, etsenpluko, bateriarik gabeko aparailu elektronikoa da soluzio bakarra. Teknologia asmatu da orain baino lehen, aplikatu izan da, merkea da eta lehiakorra. Kontatua dut nire webean, Blue Economy-n... Industriak, noski, ez dela egingarri dio, elektronika enpresa guziak bateriak saltzetik bizi baitira. Nola nahi duzu bertzela erran dezaten? Krisi aroan garelarik, inork ez du galdu nahi 40.000 milioi bateria saltzeak dakarren dirua! Joko-arauak aldaraziko dituzten ekintzaile saiatuak behar ditugu”. ■

Sektore Publikoko kontratuak eta euskara

JON SALAZAR

IVAPEKO AHOLKULARI JURIDIKOA

Gaur egun, kontratazio publikoaren arloan indarrean dago Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua. Bestalde, euskara arloan, 30 urte bete berri ditu mugarri den Euskararen Erabilera Arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak.

Sektore publikoan hainbat kontratu mota daude: obra-kontratuak, herrilanen kontzesioko kontratuak, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakontratuak. Kontratu horiek, balio zenbatetsiaren eta kontratu motaren arabera, erregulazio harmonizatukoak izan daitezke. Kasu horretan, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean esleipenerako iragarkia argitaratu behar da. Halaber, sor daitezkeen auziak ebazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa sortu da, kontratu harmonizatu eta beste zenbait kontratuaren aurkako helegiteak ebazteko.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta euskararen arteko harremanak jatorri ezberdinak eduki ditzake; baina, beti ere, kontratuaren xedearekin lotura estuan.

Kontratazio prozeduraren faseak eta euskararen eskakizuna

Lizitaziorako enpresek aurkeztu behar dituzten agiriak, normalean, gutun-azal ezberdinetan aurkezten dituzte. Lehengo gutun-azalean, gaitasun eta kaudimen-betekizunei buruzko agiriak aurkezten dira; bigarren batean, aplikatzeko judizio-balioa behar duten irizpideak; eta hirugarrenean, eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak.

Era berean, lizitazioan hiru fase bereiz daitezke. Ondoren aztertuko dugu nola uztartzen diren lizitazio-fase bakoitza eta euskararen eskakizuna.

Kaudimen-fasea. Enpresak esleipenera onartu baino lehenagoko fasea da. Bertan, ekonomia- eta finantza-kaudimena-ri eta gaitasun tekniko edo profesionalari dagozkion betekizunak aztertzen dira.

Fase horretan, batzuetan, kontratuaren aurrekontua eta xedea kontuan hartuta “sailkapena” egiaztatzen duen ziurtagiria eskatzen da (sailkapen hori emateko, enpresaren kaudimena aurretik aztertu behar izan da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean enpresa hori erregistratu). Kasu horietan, ez da beste kaudimena eskatzen.

Sailkapen hori eskatu behar ez denean, kaudimena egiaztatzeke beste bide batzuk zehaztu daitezke; esaterako, eskarmentua edo lana beteko dutenen ikasketak aztertzea. Horrela, kontratuaren xedek euskararekin lotura zuzena badu (adibidez, euskarazko ikastaroak emateko zerbitzu-kontratuetan), enpresa horri kontratua euskaraz betetzeko gutxieneko baliabide batzuk badituela egiaztatzea eskatu ahal zaio, adibidez, euskarazko beharrezko maila duten langileak badituela.

Balorazio-fasea. Enpresa onartu ondorengo fasean, zehaztutako esleipen-irizpideak baloratu behar dira. Hau da, egindako eskaintzari puntuak ematen

zaizkio, aurretik zehaztutako irizpide eta formulen arabera. Horrela, prezioaz gain, beste irizpide batzuk egon daitezke; adibidez, exekuzioa euskaraz egin behar bada, euskaraz egindako laginak edo ereduak balora daitezke.

Gauzatze-fasea. Hirugarren fasean, esleitu ondorengoan, kontratua exekutatu edo gauzatu egiten da. Une horretarako, lizitazioaren agiritan kontratua gauzatzeko baldintza bereziak ezar daitezke, baita enpresei eskaintza aurkezterakoan baldintza horiek beteko duten konpromisoa eskatu ere. Konpromiso horiek ez betetzeak zigorrak ezartzea edo sinatutako kontratua deuseztatzea ere ekar dezake.

Fase horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak hizkuntzaren inguruko baldintzak onartuak ditu bere kontratuetarako, eta horrela, Administrazio Klausula Zehatzen Agiritan honakoak jasotzen dira –aldaketa txiki batzuekin kontratu motaren arabera–, adibidez, obra-kontratuetan:

KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK

Kontratu hau EAEko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezartzen duen eta Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak arautzen duen bi hizkuntzen ofizialtasunaren erregimenaren pean dago, bai eta erregimen hori garatzen duen araudiaren pean ere.

Kontratu gauzatzeko baldintzetako bat da bi hizkuntzak erabiltzea, non eta baldintza teknikoan agiritik ez den ondorioztatzen kontratuaren xede den prestazioa hizkuntza batean edo bestean bakarrik egin behar dela nahitaez, prestazioak berrezko dituen ezaugarriengatik. Kontratuaren klausuletako edozein betetzen ez denarako ezarritako ondorioak ekarriko ditu betebehari hori ez betetzeak.

Kontratu gauzatzeko orduan, kontratua gauzatzeko ezarritako hizkuntza-baldintza zehatzak bete behar dira, dagokion klausulan ezarritakoak.

KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratu gauzatzeko hizkuntza-baldintzak.

1. Errotuluak, abisuak, seinaleak eta bestelako komunikazio orokor guztiak euskaraz eta gaztelaniaz jarri behar dira.
2. Kontratu betetzeko hirugarrenekin edo herritarrekin harremanetan jarri behar bada, herritarrek edo hirugarrenek hautatzen duen hizkuntza erabili behar du enpresa esleipendunak komunikaziorako, ahoz zein idatziz; orobat kontratua gauzatzen ari den bitartean erabiltzaileekin edo pertsonekin harremana izan behar badu. Hizkuntzetako bat berariaz hautatu ezean, enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan bidali behar dizkie jakinarazpenak eta era guztietako berriemateak (fakturak eta bestelako trafiko-agiriak barne) pertsona fisiko eta juridikoei. Hala ere, herritarrek noiznahi balia dezakete hizkuntza hautatzeko eskubidea, eta eska dezakete hizkuntza bat bakarrik erabiltzeko.
3. Normalean, administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da kontratuak eragiten dituen harremanetan. Kontratu gauzatzeko, hauxe izango da «normalean euskara erabiltzea»:
 - a) Ahozko komunikazioetan, kontratua gauzatzen ari diren langileetatik euskara dakitenez, administrazio kontratatzailearekin aritzeko, euskaraz hitz egingo dute hasieran. Administrazio kontratatzaileak euskara erabiltzen badu kontratua gauzatzeko izendatutako langileekin eta ez badago inor hizkuntza hori ondo ezagutzen duenik, obra gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu administrazioarekin hizkuntza horretan jardun ahal izateko behar diren baliabideak edo behar den euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak.
 - b) Idazkiak euskaraz eta gaztelaniaz egin behar dira, bi alderdiek euskara hautatu ezean.

Ondorioak

Horrela, lehen adierazi bezala, kaudimen-fasean eta esleipen-irizpideen balorazio-fasean euskararen presentzia-mailak lotura handia izango du kontratuaren beraren xedearekin. Gauzatzeko fasean, ordea, euskararekiko lotura hori konpromisoen bidez lor daiteke.

Aldi berean, gauzatze-fase hori erabil daiteke, Eusko Jaurlaritzaren agiritan jaso bezala, herritarrekiko harremanak zehazteko hizkuntzaren inguruko baldintzei dagokienez, eta baita Administrazioaren eta enpresaren arteko hartu-emanetan ere.

Europatik etorri den legediaren bultzadarekin, aipatutako 3/2011 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak lizitazioetan parte hartzeko printzipio orokor batzuk ezarri eta goraitu ditu, hala nola, askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak.

Horregatik, lehiaren aurkako baldintzak eta irizpideak ezin dira eskatu; baina, aldi berean, hizkuntza ofiziala den euskaraz aritu ahal izateak bermatuta egon beharko luke, bai herritarrekiko harremanetan eta baita enpresa eta Administrazioaren arteko harremanetan ere. Ez dugu ahaztu behar aipatutako 10/1982 oinarrizko Legeak dioela euskal herritar guztiek hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz erabiltzeko eskubidea dutela, eta laneko ekintzetan eta edozein bilkuran euskaraz egiteko eskubidea dagoela, batez ere, Administrazioarekiko harremanetan.

Beraz, gauza bat da kontratazioaren printzipio orokorrak babestea ekonomia-aren aldetik onuragarriena den eskaintza aukeratzeko –are garrantzitsuagoa dena krisialdi egoeretan–, eta beste bat hizkuntza irizpideak bermatzeko aukerak ez jorratzea. Baina horrek guztion arteko elkarlana eskatzen du. ■

Bulegotika hiztegia

URTZI BARRENETXEA

IVAPEKO ADMINISTRAZIO HIZKERAREN ATALA

Bulego lanetarako aplikazio informatikoen multzoari deritza bulegotika. Gure lanetan gero eta presentzia handiagoa duen esparru horretako hitz eta terminoen erabilera erabat arrunta da gaur egun.

Euskarari dagokionez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) arloari buruzko hiztegia argitaratu zuen, 2010ean. Lanaren gidaritzza Euskararen Aholku Batzordeak eraturako Terminologia Batzordeak burutu zuen.

Batzordeak ekoiztako beste hiztegien kasuan bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan kontsulta daitezke bulegotikarekin lotutako hitzak.

Eguneroko lanean sortzen zaizkigun zalantzei erantzun nahian, hona hemen hiztegi horretan dauden terminoekin osatutako zerrendatxo bat:

A

arakatu

es examinar
fr parcourir
en browse

argumentu

es argumento
fr argument
en argument

arrastatu eta jaregin

es arrastrar y colocar
fr glisser-déposer
en drag and drop

autentifikazio

es autenticación
fr authentification
en authentication

azpiindize

es subíndice
fr indice inférieur
en subscript

B

balio lehenetsi

es valor predeterminado
fr valeur par défaut
en default value

banaketa-zerrenda

Sin. posta-zerrenda
es lista de distribución; lista de correo
fr liste de distribution; liste de diffusion; liste de messagerie
en mailing list; mailing distribution list

barruti

es área
fr plage
en range

batu gelaxkak

es unir celdas; combinar celdas
fr fusionner les cellules; fusionner des cellules
en merge cells

bereizmen handi

Sin. bereizmen xehe
es alta resolución
fr haute résolution
en high resolution

bereizmen txiki

Sin. bereizmen larri
es baja resolución
fr faible résolution; basse résolution
en low resolution

berretsi pasahitza

es confirmar contraseña
fr confirmation du mot de passe; confirmer le mot de passe
en confirm password

bidaltzaile

es remitente
fr expéditeur
en sender

bilaketa-irizpide

es criterio de búsqueda
fr critère de recherche
en search criteria

bilatu eta ordeztu

es buscar y reemplazar
fr rechercher et remplacer
en find & replace; find and replace

bulet

es viñeta
fr puce
en bullet

bulet-dun zerrenda

es lista con viñetas
fr liste à puces
en bulleted list

C

clipart

es clipart; imagen prediseñada
fr clipart
en clipart

D

datu-orri

Sin. inprimaki
es formulario
fr formulaire
en form

diapositiben maisu

es patrón de diapositivas
fr masque des diapositives
en slide master

doitu automatikoki

es autoajustar
fr ajuster
en autofit

E	I	lehen mailako gako	T
elkarrizketa-koadro	iragazki	es llave primaria	tamaina aldatzeko helduleku
es cuadro de diálogo	es filtro	fr clé primaire	es controlador de tamaño
fr boîte de dialogue	fr filtre	en primary key	fr poignée de redimensionnement; poignée
en dialog box	en filter		en sizing handle
erabilerraztasun	irteerako ontzi	lerrokatze	testu-animazio
es accesibilidad	es bandeja de salida	es alineación	es animación de texto
fr accessibilité	fr boîte d’envoi; corbeille de départ	fr alignement	fr animation de texte
en accessibility	en outbox	en alignment	en text animation
eskatu irakurrageria	K	M	testu-koadro
es solicitar confirmación de lectura	kalkulu-orri	maximizatu	es cuadro de texto
fr demander une confirmation de lecture	es hoja de cálculo	es maximizar	fr boîte de texte; zone de texte
en request a read receipt	fr feuille de calcul	fr agrandir	en text box
esku-orri	en spreadsheet	en maximize	testuaren noranzko
Sin. prospektu	klik bikoitza	mezu baztergarriak	es dirección de texto
es volante	es doble clic	Sin. zabor-posta	fr orientation du texte
fr prospectus	fr double-clic	es correo electrónico no deseado; correo basura; correo no deseado	en text direction
en handout; audience handout	en double clic	fr pourriel; courrier-déchet; courriel-rebut; courrier indésirable	titulu
G	kontsulta	en junk e-mail; junk mail	es título
gako-hitza	es consulta	O	fr titre
es palabra clave	fr requête	oin-ohar	en title
fr mot-clé	en query	es nota al pie	W
en key Word	korritze	fr note de bas de page; note en bas de page	web-arakatzaille
H	es desplazamiento	en footnote	Sin. arakatzaille
hari	fr défilement	ordezko testu	es explorador Web
es hebra; discusión; hilo	en scrolling	es texto alternativo	fr navigateur Web
fr fil de discussion; fil	L	fr texte de remplacement	en Web browser
en thread; discussion thread	lan-orri	en alternative text	Z
hartzaile	Sin. laneko orri	S	zenbakidun zerrenda
es destinatario	es hoja; hoja de cálculo	saguaren erakusle	es lista numerada
fr destinataire	fr feuille; feuille de calcul	es puntero del ratón	fr liste numérotée
en addressee; recipient	en worksheet	fr pointeur de la souris	en numbered list
helbide-liburu	laneko liburu	en mouse pointer	zutabe-izenburuak
es libreta de direcciones	Sin. liburu	sinadura digital	es títulos de columna
fr carnet d’adresses	es libro; libro de trabajo	es firma digital	fr en-têtes de colonne
en address book	fr classeur	fr signature numérique	en column headers; column headings
hiperesteka aktibo	en workbook	en digital signature	zuzenketa automatiko
es hiperenlace activo	laster-tekla		es autocorrección
fr hyperlien actif	es combinación de teclas		fr autocorrection
en active hyperlink	fr raccourci-clavier		en autocorrect
	en shortcut key; keyboard equivalent; keyboard shortcut		

Hiztegiko hitzak Euskalterm Terminologia Banku Publikoan aurki ditzakezue:

http://www.euskara.euskadi.net/q91Eus-TermWar/kontsulta-JSP/q91aAction.do;jsessionid=sZ2yQ8CZQ3JVH19M74K1q2wQ49pKhVzPZodyDprLBvJLx3qov2nTl-1366652921?ekin=HIZKUNTZA_ALDATU&hizkuntza=eu&hizkaIdatua=eu

Hiztegiak PDF formatuan osorik kontsultatzeko helbide honetara jo dezakezue:

http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/terminologia_batzordeak_onarututako_hiztegiak.html

Sare sozialak

NAGORE DORRONSORO

EUSKARA TEKNIKARIA

2012/06/21

Fermin

Bide onetik goaz, terapia hasi da fruituak ematen! Gaur, azkenean, aurrerapauso handia egin du fobia soziala gainditzeko bidean. Izugarria. Hamar minutuz kafea hartzen izan da lankideekin, ordenagailua begien paretik aldentuta. Xabier eta Eugenio basaganauak direla dio, ahoak eman ahala aritzen direla, berbalapiko hutsak.

Oharra: horrek ez dio kalterik egingo.

Berak apenas hitzik egin duen, baina ez da hain txarto ere sentitu.

–Hori ohitura bihurtzea da orain gure hurrengo erronkatxoa, Fermin.

Buruarekin onartu dit, baina bere eskuen jolasak kezka adierazten du.

2012/06/28

Fermin

Neska hori benetan gustuko du. Ez diot galdetu, aterako da aurrerago kontua, eta aitortuko dit gogo baldin badu, ez dut behartuko. Edozein modutan, garbi sumatu diot eta kontuan izango dut hurrengo saioetan, terapiaren arrakastarako tresna baliagarria izan daiteke eta. Kafemakinaz arduratzen den neska da, eta oso polita begitantzen zaio, hawaiiarra dirudi. Solairuko jende guztiaren ahotan omen dabil neska beltzarana, eta haren bisitak beti ematen du kafe-foroetan zeresanen bat. Lehengo ostiralean makina betetzera pasa zen, eta Eugenio bazter-nahastaileak, asteburu-usainak animatuta, apustu modukoa proposatu omen zuen: neska han azaltzen zen bakoitzean zerbait esatea, ausarta izango zen zerbait.

Bera hasiko zen, nahi bazuten. Xabierrek algara zoroaren ostean buruari emango ziola agindu zion.

–Eta zuk Fermin? –xaxatu dut.

–Nik zer??

Oharra: lan dezente dugu aurretik.

2012/07/05

Fermin

Bart egindako ametsa izan du gaur egun osoan zehar buruan endredatuta, eta irrikan egon da niri kontatzeko. Antza denez, hasi dute dagoeneko kafemakinako jolasa, Eugenio estrenatu da, agindutako moduan, berebiziko astapotrokeriaz hasi ere... Fermin zeharo lotsagorrituta egon da, eta komunera ospa egin du, inoren bistatik desageritzeko. Eugenioren komentario matxista eta saskarrak ez dio beste aukerarik laga: “Egun on neska, ze berospa kafemakina hauen inguruan, ezta? eta zu egun osoan makina artean..., pikua umel-umel izango duzu honezkero!”. Horren haritik, bada, ametsa. Ametsetan, egoera hori desitxuratu du Ferminnek eta bere burua ikusi du, bera eta neska bakar-bakarrik kafemakinaren aurrean:

–Ametsean metafora polit bat egin diot kafearen eta bere narruaren kolorearekin, orduan, irribarre zabal-zabala egin dit, ez Eugenioren jarritako ezpain estuak. Alberto –esan dit, niregana itzuliz–, errealitatea balitz..., gai banintz!

–Izango ez zara ba! Zenbat urte daramatzazu nirekin, bi? Eta denetara zenbat terapia?

–Jungianoa, gestalt eta..., nola da hau? Hau Reichianoa dela gogorarazi diot.

2012/07/12

Fermin

Betozkoarekin etorri da, lur jota eta asaldatuta, bere buruarekin oso ernegatuta. Arrapaladan hasi da hitz egiten. Lasaitzeko te bancha jarri dut irakiten. Tearen laguntzaz pixka bat baretu denean hasi da gauzak ulertzeko moduan esaten. Larunbat iluntzean Guridira joan zen, betiko moduan, film bat ikustera. Argiak itzali aurretik, butakan eserita lasai-lasai zegoela, neska bat hurbildu zitzaion, bekain-keinu batez ilaran barrura pasatzen lagatzeko eskatuz. Kafe-makinako neska zela ohartu zen berehala. Neska eserlekua hartu eta begira geratu zitzaion: “Ui, nik ezagutzen zaitut, baina nondik?”. Buruarekin ezezkua egin zion Ferminnek. Argiak itzali ziren. Azkenean nolabait filmean sartzea lortu zuen arren, esan didanez, bukaerako letrak bistatzerako arrara elektrikoen segida batek hartua zion soina. Albora begiratu gabe abiatu omen zen kanpora, baina zinematik kalera atera zenean norbaitek heldu zion besotik: “Barkatu baina ezin dut gogoratu nondik ezagutzen zaitudan, eta asko tematzen naiz, eta amorrua ematen dit horrek, orduan, pentsatu dut, igual elkarren berri izan dezakegula, eta memoria freskatu, eta... edo... eztarria freskatu gutxienez! Hementxe bizi naiz, oso gertu, nahi baduzu...”. “Ezin dut, presa daukat.”

–ZE PRESA ETA PRESAONDOKO??
bota diot sutan.

Neure onetik atera nau. Zinemakotik aste osoan ez du kafe bakarra hartu. Atzerapausoa berriro. Harreman-saretik kanpo gelditzeko arriskua berriro.

Oharra: Alberto, kristoren pazientzia beharko duzu gizon honekin. ■

Lanaren neketik suspertzea: suspertzeko beharraren arrazoiak eta suspertzeko jarraibideak

VALERIA COLOMBO eta EVA CIFRE

Lan egiteak ahalegin fisikoa eta mentala egitea eskatzen du. Ahalegin hori behin eta berriz edo modu iraunkorrean eginez gero, neke maila handiak sortzen dira, eta horrek, atsedena eskatzen du erabilitako energiak leheneratzeko. Akidura fisiko eta psikikora heldu arte lan egiteak osasun-arazo kronikoak (besteak beste, estresa, gaixotasun kardiobaskularrak) eta lan-arazoak sor ditzake (adibidez, gaixotasunagatiko absentismoa, lan-istripuak, zereginak modu eskasean betetzea, enplegatuen txandakatze handia eta pertsonen arteko gatazkak), baita erakundez gaindiko arazo sozialak ere (adibidez bikote-arazoak, bizitza soziala murriztea). Gorputzak eta adimenak bidaltzen dizkigute metatutako nekearen lehen seinaleak, indarberritzea gizaki garen aldetik dugun gaitasun mugatuaren berezko beharrezana baita.

Lanak sortzen duen estresetik suspertzea aipatzen dugunean, estres hori sorrarazten duten laneko elementuetatik atsedeen hartzeaz ari gara. Suspertzea, estresa sorrarazten duenaren aurkako prozesua dela esan daiteke, eta prozesu horren garrantzia, lan egitearekin zerikusia duen nekearen ondorio negatiboak murriztean datza. Ikuspegi fisiologikotik, lanetik atsedeen hartzeak osasunaren narriadura dakarren neke- eta estres-metaketa murrizten eta prebenitzen du. Ikuspegi psikologikotik, gure baliabideak eta energiak leheneratzen ditu, eta oraingo edo geroko lan-eskarietarako prestatzen gaitu. Gaur egun, zenbait ikerketa zientifikok lanetik suspertzearen garrantzia eta suspertze horren eta beste eragile batzuen artean –osasuna edo produktibitatea, adibidez– dagoen harremana aztertu dute (ikus Colombo eta Cifre, 2012, berrikuspina egiteko). Azterlan horien ondorio gisa, lanaren suspertze handiagoa bideratuko duten jarraibide batzuk proposatzen ditugu:

1. Laneko estresetik suspertzeko, lehengo urratsa gorputzak bidaltzen dizkigun seinaleei kasu egitea da. Besteak beste, buruko mina, neke mentala, suminkortasuna, kontzentrazioerik eza eta muskuluetakoa minak dira neke-metaketaaren sintoma arruntenak. Seinale horiek lanean ari garela zein lanetik kanpo agertu arren, seinaleok zerk sorrarazten diz-

kigun ohar gaitezke, eta horrenbestez, haien arazoietan eragin, susper-tu ahal izateko.

2. Akituta sentitzen garenean, lanetik deskonektatzeko minutu batzuk hartzea beharrezkoa da. Horri buruzko hainbat azterlan zientifikok iradokitzen dutenez, lanaldian atsedendaldi laburrak hartuz errendimendua, kontzentrazioa eta umorea hobetu egiten dira. Azterlan horiek, lan handiko bi orduetik behin 10 eta 15 minutuko atsedendaldia hartzea gomendatzen dute. Gakoa, estresa sorrarazten diguten gauza guztietatik deskonektatzeko gai izatean datza. Hau da, lanean ari garela, lan egin dezagun; atsedeen hartzen ari garela, atsedeen har dezagun. Atsedendaldietan lan egiteak ez gaitu eraginkorrago bihurtzen. Aitzitik, gure errendimendua berbera edo are txikiagoa da, eta gainera, gure energiak agortzen ditugu.
3. Egiteke dauden zereginak, itxaroten ari diren deiak edo agenda eztanda egiteko zorian daudenean, egin dezagun geldialdi bat! Har dezagun arnasa sakon, saia gaitezen erlaxatzen eta gure gorputza astiro oxigenatzen. Arnas sakonak gure burmuina oxigenatzen laguntzen du eta askoz hobe funtziona dezan ahalbidetzen du. Erlaxazio-une horiek argitasun

eta arintasunez pentsatzen lagunduko digute, eta amaitu gabe dauden lanak burutzeko beharrezkoak diren energiak berreskuratuko ditugu. Itxaronaldia ulertzearen eta itxaronaldia bera egitearen lan zail horri, mendekotasun bitxi bat gehitzen zaio, posta elektronikoko mezu berriak, bilerak eta agendaratutako lan-konpromisoak etengabe gogora ekartzen dizkiguten gailu elektronikoko txiki horiekiko, mugikorrekiko, tabletarekiko edo antzeko beste edozein gailurekiko mendekotasuna, alegia: lanetik deskonektatu nahi badugu, zergatik konektatzen gara teknologiarik? Goza dezagun atsedendiaz. Lankideekin kafe bat hartzea, berdegune batera irtetea, gustatzen zaigun musika entzutea eta horrelako beste jarduerak batzuk estrategia eraginkorrenak izan daitezke.

4. Halaber, enpresarekin lankidetzan hainbat gauza landu ahal ditugu: besteak beste atsedenerako denbora eta espazioak (bir)diseinatzeak, estrategiak (kafetegi batez hornitutako gela bat, adibidez), erakundeen barruan suspertzeko jardueretarako proposamenak (gimnasio bat edo oinez ibiltzeko gune bat edukitzea, kasurako), edo aparteko orduak eta lan orduetatik kanpoko lana eta lan egiteko prestasuna (telefonoaren edo posta elektronikoen bidez) arautzeko politikak eta jarraibideak.
5. Lanekoa ez den denboran ere, lanetik suspertu ahal gara: lanaren osteko orduetan, asteburuetan edo oporretan. Hala ere, lanetik kanpoko denbora guztia ezin da «astialdiarekin» edo aisialdiarekin parekatu; izan ere, baliteke denbora horren xedea ez izatea guztiz lanean inbertitutako baliabideak eta energia berreskuratzea. Alde batetik, pertsonak astialdiaren zati nabarmena «mantentze-jardueretarako» erabiltzen dute, esate ba-

terako lo egiteko, jateko edo higiene pertsonalerako. Beste alde batetik, etxeko lanek, haurren zaintzak eta lanarekin zerikusia daukaten zereginak lanaldian jada inbertitu direnen antzeko baliabideak kontsumitzen dituzte, eta hala, suspertzeko aukerak inhibitzen dituzte.

Horri buruz egindako hainbat ikerketa-lanetan, suspertzea areagotzeko aproposagoak izan daitezkeen aisialdi-jarduerak tipikoenak identifikatu dira. *Ahalegin txikiko jarduerak*, –besteak beste, lo egitea, telebista ikustea, aldizkari bat irakurtzea edo besterik gabe sofan erlaxatzea– jarduerak pasiboak dira, ez dute batere gauza handirik eskatzen, eta sistema fisiologikoari estresaren aurreko egoerara erraz itzultzeko eta suspertzeko aukera ematen diote. *Jarduerak sozialak*, esate baterako jai batera joatea, lagunekin biltzea, edo pertsona berriak ezagutzeko suspertzeko baliagarriak dira; izan ere, lanean inbertitu direnen antzeko baliabiderik ez eskatzeaz gain, laguntza soziala jasotzeko aukera ere ematen dute. *Jarduerak fisikoak* prozesu fisiologiko eta psikologikoak pizten dituzte. Era berean, prozesu horiek osasun fisikoa ez ezik osasun mentala ere hobetzen dute (adibidez, gogo-aldarte positiboa). *Erronka kognitiboak* dakartzaten *jarduerak*: erronken eta ikasteko aukeren bilaketari lotutako baliabide kognitiboak erabiltzen dituzten jarduerak egiten diete erreferentzia. Horiek dira, adibidez, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako (IKT-etako) langileek egiten dituztenak. Informatikako programak (jokoak, softwarea) garatzea, bideo-jokoetan eta/edo ordenagailuz jolastea, trebakuntza- edo gaikuntza-ikastarotara joatea (hizkuntza edo trebetasun berri bat ikastea) dira mota horretako jardueraren adibide batzuk (Colombo, Cifre eta Salanova, 2011).

Mota askotariko jarduerak horiek guztiak suspertzekoak direla esaten da, jarduerak horien oinarrian lanetik suspertzeko bidea ematen duten esperientziak direlako, besteak beste erlaxatzea, laneko estres-eragileetatik deskonektatzea, erronkak bilatzea eta astialdia kontrolatzea. Suspertze-espereientzia horiek dira suspertzeko prozesuaren arrakastaren benetako protagonistak; estres-eragileetatik urruntzen gaituzte fisikoki eta mentalki, eta halaber, baliabideak eta energia sortzen laguntzen digute. Horregatik, gure suspertzea behar bezalakoa denean, gure lanaldia hasteko edo jarraitzeko animoz eta indarrez sentitzen gara.

Langileen ongizate fisiko eta psikosozialarekin zerikusia duten alderdien artean, lanetik suspertzeari buruzko garrantzia eta interes zientifiko eta soziala nabarmentzen dira. Giza kapitalaren gaur egungo kudeaketa-ereduetan lanetik suspertzearen kontzeptua eta jardunbidea txertatzea funtsezkoa izan daiteke arrisku psikosozialen prebentzioan eta ongizate-espialaren sorreran. Denok jardun gaitetzeko osasunaren sustatzaile gisa, ebidentzia zientifikoan oinarrituta, lan-arloko ongizateari zein ongizate psikosozialari eusteko laneko zein lanetik kanpoko atsedendborak duen garrantziaz kontzientzia sortzeko, bai kudeatzaileengan, bai zuzendariengan, baita enplegatueengan ere.

Anima gaitetzen lanaldian atsedendaldi bat hartzea eta aisialdiko denboraz gozatzera, lan-kontuetatik deskonektatzeko eta gure kezkek uxatzeko jarduerak askotarikoak eta dibertigarriak eginez. Egin diezaiogun lekua gure suspertzeari, gure ongizateari. ■

ERREFERENTZIAK

- Colombo, V. eta Cifre, E. (2012). "La importancia de recuperarse del trabajo: Una revisión del dónde, cómo y por qué". *Papeles del Psicólogo*, 33 (2), 129-137.
- Colombo, V., Cifre, E. eta Salanova, M. (Mayo, 2011) *Can Information and Communication Technology workers recover although...? European Association of Work and Organizational Psychology izenekoaren Biltzarrean aurkeztua, Maastrichten (Holanda).*

GEOINGENIARITZA: azken megalomania

AITOR SÁEZ DE CORTÁZAR JUNGUITU

PROIEKTU BURUA. EKOIZPEN ETA KONTSUMO IRAUNKORRAK.

IHOBE



Geoingeniaritza zer den? Teknika batzuk dira, planeta osoan aplikatzen dira, eta, klima nahita aldatuz, aldaketa klimatikoa leundu nahian sortu dira.

XXI. mende honetan, inor gutxi esango du aldaketa klimatikoa egia ez denik, eta aurreikuspenetan ere zalantza gutxi dago. Atmosferan CO₂ metatzeak tenperatura igotzea dakar, eta, adituek diotenez, lurrraren batez besteko tenperatura 2 gradu baino gehiago goratzen baldin bada, sistema osoa goiti-behera geldiezineko batean abiatuko da, atzera bueltarik gabe, ez behinik behin giza espeziearen iraupen-tartea amaitu baino lehenago. Bada, aurreikuspenek diotenez, ez gara gai izango ezta 2 gradura arteko metaketa hori saihesteko ere. Isurketaren zenbatekoaz ohartzeko, kontu egin erregai fosilak errez urtebetean atmosferara isurtzen dugun karbono dioxido guztia atzeman, eta izotz lehor modura gotortzen dugula; bada, mendi kozkor hori kilometro eta erdi izango litzateke garai, eta, oinarrian, 20 kilometroko zirkunferentzia izango luke. Hortik kontuak atera.

Desafio horrek kitzikaturik, hainbat estrategia asmatu da. Eta geoingeniaritza da horietako bat. Baliteke helburuak zintzoak izatea, baina, bitartekoak ezta-

baidagarriak gutxienez badira, edo are eta, maiz, salagarriak ere, eta badago susmoa atzetik ez ote dituen sasiko beste interes batzuk, bultzaka.

Ingurumen-zientzietan, bada oinarrizko printzipio bat, “kontuz ibiltzeko” agintzen duena, eta esaten duena, ezein konponbide berri martxan jarri baino lehenago, zientifikoki demostratu behar dela ez dakarrela arriskurik. Hala ere, geoingeniaritzaren proposamenek, orokorrean, ez dute printzipio hori aintzat hartzen.

Ikus dezagun zer-nolako burutazioak dauden izen potolo horren atzetik.

Funtsean, bi taldetan sailkatuta datoz:

1. Batzuek, karbono gehiago atzeman, atmosferan gutxiago metatzea lortu nahi dute.
2. Beste batzuek, berriz, Lurrean eragina duen eguzki-erradiazioa nahi dute gutxiagotu. Lurrak, Eguzkitik datorkion argiaren gutxi gorabehera % 30 islatu, eta gainerakoa xurgatu egiten du, eta joera honek dio,

argi gehiago islatzen baldin badugu, negutegi-efektua apaldu, eta planeta hoztu egingo dela.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

- Karbono dioxidoa bahitzea eta atzemaitea. Teknikak askotarikoak izan daitezke.
- Atmosferan aerosolak injektatzea, esate baterako azufre-konposatua, hartara, Lurraren albedoa handiagotzeko. Litekeena da, ordea, euri azidoaren eraginez, itsasoen azidotzea areagotzea, orain ere azidotzen ari baitira CO₂a xurgatzen ari direla-eta. Azidotze horrek, gero, oso ondorio larriak izango lituzke itsasoetako kate trofikoan. Izan ere, pH-a baxua baldin bada, organismo maskordun askok –eta halakoak daude kate horren oinarrian– ezingo dute maskorrik egin. Eta bada, gainera, albo-ondorio bat ere: aerosolak ugaritu eta eguzki-erradiazioa murrizteak, antza, prezipitazio gutxiago eta lehorre gehiago ekarriko ditu.
- Itsasontzi handi saldo batek, mundu osoan zabaldua, hodeiak sortzeari ekitea Lurraren albedoa handiagotzearen.

Oro har, esan daiteke iluntze globala lortu nahi duten bigarren taldeko teknikek landare-produkzioan ere izango luketela eragina, baina ez da erraza ondorioei antzematea. Hona hemen hainbat adibide:

- Atmosferan zilar ioduroa zabaltzea, euri artifiziala eragiteko suziriak erabiliz. Gaur egun, ez dago konposatu horrek non amaitzen duten jakiteko modurik, eta jakina da substantzia toxikoa dela.
- Itsasoa burdin-konposatuak erabiliz ongarritzea plankton fotosintetikoaren aparteko hazkundera eragiteko; ondorioz, biomasa sortu berri horri esker, orain baino karbono dioxido gehiago

finkatuko litzateke. Baina hemen ere zalantzak daude substantzia horiek organismoetan daukaten eraginen inguruan. Horri gehitu behar zaio izaki-kopuru handiak aldi berean hil eta usteltzeak dakarren uretako oxigeno galera.

- Espazioan erreflektoreak ipintzea. Kontzeptu hau oraindik teorikoa da. Kontua da ezkutuak, ispilua edo prismak erabiliz, argi-kantitatea murriztea. Adibidez, orbitan lente txiki batzuk jarritz, eguzki-argia Lurretik kanpora errefraktatzea. Trilioika lente beharko lirateke, metro betekoak gutxi gorabehera, fin-finak eta tximeleta bat baino apur bat astunxeagoak.
- Beste ideia badaezpadako bat da basamortuetan zinta moduko batzuk jartzea, argi-islagarri; edo ozeano guztietan plastiko zurizko “uharteak”, urazalean ipinita eta espaziorantz bideratuta, eguzki-argi gehiago islatzeko.

Sakonean, klima guk nahi bezala aldatu nahi fantasiatzeko horren atzean, botere-talde jakin batzuk dabilta, etorkizunerako halako aukerak proposatzen. Talde horiek, hidrokarburoetatik askatu ezinda edo nahi ezta, nahi erara maneiatzen dute munduko soziopolitikaren parte handi bat, eta, bide honetatik aurrera eginda, gure energia-premia asezi-na erregai fosilez elikatzen jarraitu ahal izango lukete. Garaiotan, potentzia handiek egunero-egunero erakusten dute ez daudela, ez, atzera egiteko. Txinak, aurrerantzean ere, ikatza erabiliko du –nahi beste baitu–, daraman industria-hazkunde bizkorrari eta zikinari jaten emateko; eta Estatu Batuetan, 2030erako, munduko hidrokarburo-ekoizle nagusia izan nahian dabilta, merkatu horren gaur egungo estatusa aldatu egin behar badute ere. (Tarteki txiki bat, argitzeko ezen, horretarako, *fracking* teknika zorigaiztokoa erabiliko dutela. Errioxako gure

auzo zentzudunek dagoneko bazterrean utzita dute teknika hori, erkidego osoa astakeria horretatik libre deklaratu ondoren. Noizko erabaki hori Euskadin?).


Bi superpotentzia horiek lehenago ere egin dituzte klima aldatzeko teknikak erabiltzeko saiakerak –kasu honetan, arkaikoenak–. Txinak, momentu honetan ere, euri artifiziala erruz sortzen du, esate baterako, lurra ureztatzeko eta lehorre arintzeko, edo suteak itzaltzeko, edo Pekin gaineko atmosfera-kutsadura garbitzeko, megapolis horretako poluzioa jasanezina denean. Atzera gehiegi joan gabe, 2008an bertan ere erabili zuten, Joko Olinpikoetan, zerua garbitu eta erakusleho itzel hartan itxura txukuna emateko. 2009an, lurralde osoaren herenean baino gehiagoan erabili zuen, lehorre baretzeko, suterik piztu ez zedin eta nekazaritzaren ekoizpena areagotzeko. Guztira, 840 hegaldi baino gehiago egin zituzten eta 116 mila suziri baino gehiago jaurti zituzten, eguraldia aldatzea lortu ahal izateko. Plangintza-egile txinatarren 2020rako aurreikuspena da orain baino 60 mila tona gehiago euri egitea urtean.

Agidanean, Estatu Batuek Vietnamen ere erabili zuten Vietcongaren ibilerak oztopatu nahian, bien arteko guda beltz hartan.

Konponbide naturalak

Benetako konponbideak, begi aurrean ditugu, batzuk beti egon dira hortxe. Planetako baliabide naturalak atzera lehen bezain bizi eta indartsu behar ditugu, eta, horretarako, lehen-lehenik, lurraren artifizialtzea eta hiritartzea geldiarazi behar da, higadura eta desertifikazioa geldiarazi. Eta, lantegi horretan, gure lagunak onenak... basoak eta zentzuzko nekazaritza ditugu.

Iritsi da aroa arbola-haziak ereiteko, arbolak landatzeko, lekualdatzeko. Honezkerok denok jakin behar genuke zein diren



gure ekosistemarako –ekosistema-mota asko baitugu– espezierik egokienak, eta horiek garatzen eta zaintzen lagundu beharko dugu. Zuhaitzak eta zuhaitzak dira bioaniztasunaren sostengu eta bizitoki nagusia. Oxigenoa sortzen dute, higadura geldiarazten eta lurren sorrera sustatzen; horrek, gainera, CO₂ gehiago finkatzea dakar. Klima erregulatzeko gaitasuna dute, batez besteko tenperaturei behera eraginez, euria ekarriz... Batak bestea dakar, soka moduko batean, eta, gu geu ere soka horretatik gatoz, eta soka horri helduta biziko gara, izatekotan ere. Hori guztia, beste hainbat kontu aipatu ere egin gabe: kultura, estetika, paisaiaren berezko balioa eta abar. Azken batean, basoak funtsezko zerbitzu batzuk ematen dizkigu, eta zerbitzu horiek eskainiko dituen beste hornitzaileak ez da. Nork daki kalkulatu horrek dirutan zenbat balio duen?

Hortaz, ziurrenera, gure planeta atzera basoz janztea izango da denik eta geoingeniaritza onena. Zorroztu ditzagun naturaren berezko armak, eta jakingo du, bai, zer egin. Horrek izan behar luke gure belaunaldiaren xedea, gure ondorengoei egingo diegun mesederik onena.

Beste datu adierazgarri bat: Biosferan, molekularik ugariena, hain justu ere, erribulosa bis-fosfato carboxilasa da. Ba al dakizue zertarako erabiltzen den? “Kasualitatez”, fotosintesian, CO₂ molekula finkatzeko erabiltzen da, gero, biomolekula karbonatuak eraikitzeko. Haiei esker gaude gu geu ere eraikiak eta haiei esker funtzionatzen dugu. Ez da, ez, bide-lagun txarra. Jakina da basoak lan-

datzea ez dela nahikoa arazoa konpontzeko, baina balantzaren orratza dela dirudi. Basoberritze globalaren kritikoak –halakorik ere bai baitago– ez dira oharitzen basoak zer-nolako eragin sinergikoak dauzkan.


Joan gaitezen denboran atzera, eta ikus dezagun noraino iristen den gure eragina. Duela ez aspaldiko ikerketa batzuetan ikusienez, lehenengo zibilizazioek egindako soiltze-lan haiek nahikoa izan ziren glaziazioen zikloa aldatzeko, hau da, badira 8.000 urte atmosferan negutegi-efektuko gasak metatzen hasi zirela (eta ez, soilik, Iraultza Industrialaz geroztik), eta, ziurrenera, metaketa horrek utzi du etenda etortzekoa zen hurrengo glaziazioaren iritsiera (azken milio bat urteetan, 100.000 urtez behin garai glaziar bat etorri izan zaigu, luraren orbitan gertatzen diren aldaketa batzuk direla-eta, aldaketa erregularrak eta aurreikusitako modukoak, gainera). Hortaz, aspalditik ari gara kliman eragiten, eta gaur egungo egoerara iristeko gai izan baldin bagara, atzera lehengora eramateko gai ere izango gara.

Ezin ahaztu, puntu honetara iritsi gareneguz, egiteke daukagun beste “ingeniaritza sozioekonomiko” handia, orain arte azaldu dugunaren eskutik doana. Beste ekonomia batera joan behar dugu, zeinetan helburuak ez duen izan behar, berez eta besterik gabe, kontsumoa eta Barne Produktu Gordina handiagotzea, baizik eta gu denok benetako ongizatera eramatea giza aurrerabidearen adierazle benetan garrantzitsuen hobekuntzaren bidez. Hazkunde horrek, funtsean, per-


tsionaz arduratu behar du, eta, oinarrian, edo zutarri modura, hala ezaguera, nola ekoizpen eta kontsumo sostengarria eduki behar ditu produktuen eta zerbitzuen bikaintasuna begi biekintzeko, irauten duten ziklo osoan. Ahal dela, Naturak egiten duen bezala egin behar du; alegia, dena delako zikloa amaitzen denean, txukun-txukun itxi, ahalik eta hondakin gutxien sortuta. Hori guztia, gainera, batez ere energia berriztagarriak erabiliz, hainbat saretan josita. Energia horrela kudeatzen baldin badugu, premien arabera denok izan gaitzke energia-ekoizle edo –sortzaile, gutxi gorabehera Internetekin gertatzen den bezala, han denok baikara informazio-igorle edo informazio-hartzaile, kasuan kasu. Energiaren “demokratizazioa” izango litzateke, eta orduantxe amaituko lirateke gure planeta ito larrian daukaten gatazka soziopolitikoetako asko, bai eta botere-zirkulu batzuen eta indarra ahalbidetzen duten horien agintea ere.

Gaur egun, jada, inork ezin du esan hori ezinezkoa dela. Ez dago aurrera egiteko beste biderik. Ekonomiak, gizarteak eta ingurumenak eskutik helduta joan behar dute, batak besteari oztupo egin gabe. Zientziaren, ikasketen eta politikaren arloko sona handieneko erakundeetan makina bat txostenek diote gakoa horixe dela: baliabideak behar den lekuan inbertitzea, eta, anabasa honetatik irtengo bagara, halaxe egin beharko dugula datozen 30 urteetan. Baditugu baliabideak, badugu teknologia... eta geroz eta denbora gutxiago geratzen zaigu. Gure esku dago, ez beste inorenean. ■

Hitz gezidunak

	* IZENA		Senidea	Sexu arra	Buru estalki	Kaia
	Belztasun		Onarrizko edari	'O' batez, jaurtiketa	Errusiako lurraldea	
	Eraikuntza					
	7. eguna					
* DEITURA	Indioa		Nafarroako herria			
Lehenaldia	Mutur		Zer lekutan?			
				Errusiako ibaia		
				Harginaren lanabesa		
Urtaro beroa			Oxigenoa	Atzo gauean		Italiako diru zaharra
Fruitu arbola			Hegazti mota	Errep., ikara		
					Behorra arreske	
					Zangoaren atala	
Zati bi			Aldia			Iodoa
Utik!			4. eta 1. bokalak			Ukatzeko
	Zuhaixka mota				Erbio	
	Kontsonantea				Kontsonantea	
Gari sorta				Itxura		

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Albisteak.
2. Sorterri.
3. Irri.
4. Geldi, lasai.
5. Bibliaren arabera, lehen emakumea.
6. Astia, denbora.
7. Hutsunerik gabea, osoa.
8. Bertzea.
9. Beste era batera.

SOLUZIOAK

T	U	N	A	S	A	L	I	R	A
Z	A	S	I	B	E	R	I	O	A
A	N	T	A	K	I	B	A	R	T
U	R	A	I	R	I	B	O	A	R
E	L	E	N	A	O	N	I	O	A
I	I	G	A	N	O	N	E	L	O

1. Berrriak.
2. Aberri.
3. Barre.
4. Bare.
5. Eba.
6. Beta.
7. Betea.
8. Bestea.
9. Bestela.

Hitz gezidunak

Goitik behera

IVAP^{EK} ZILARREZKO QA JASO DU



Kudeaketaren
Kalitateari

2 0 1 2

Laster ikusgai Ivapeko web-orrian

www.ivap.euskadi.net



ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu,
idatzi helbide honetara:

IVAP

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioeuskaraz@ivap.es

Abizenak

Izena

NAN/IFZ

ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta